



# *Eder-min*



Paulin Solozabal Solozabal

EGILEA: Paulin Solozabal Solozabal

URTEA: Bilbao, 2008

IRARKOLA: Flash Composition, S.L.

LEGE GORDAILLUA: BI-620-08

## AURKIBIDEA

Eder-min .....	11
Itza .....	12
Izardi .....	13
Goizalde .....	14
Aranburu .....	15
Jakintza .....	16
Sormen .....	17
Tximistondo .....	18
Bizia .....	19
Udabarria .....	20
Gogo min .....	21
Argia .....	22
Arizti adizkide .....	23
Arizmendiarrjeta tar Jose Maria .....	24
Aldatz gora .....	25
Berri emoillea .....	26
Maxa .....	27
Biotz barnean .....	28
Euskeraz mintzatzen .....	29
Ederraren billa .....	31
Maitasun gidaria .....	32
Ongi-naia .....	33
Biotz .....	34
Zurtasun .....	35
Gomutagarria .....	36
Entzumen .....	37
Bidertz .....	38
Euskera .....	39
Mintzaira .....	40
Zugadi .....	41
Adi adi .....	42
Mendirik mendi .....	43

Ikasten .....	44
Bizian gora .....	45
Anaitasuna .....	46
Etxebarria .....	47
Izardi .....	48
Eskaria .....	49
Lan ta lan .....	50
Eder .....	51
Zelaia .....	53
Ikastola .....	54
Mendiguren .....	55
Itxasalde .....	56
Ikasketa .....	57
Aintza .....	58
Solo zabala .....	59
Maxalde .....	60
Eder-min .....	61
Egillea .....	62
Lur ederra .....	63
Ortzia .....	65
Egazka .....	66
Egaldaka .....	67
Egaldi .....	68
Edurtza .....	69
Egal .....	70
Indarrez .....	71
Orlegi .....	72
Ardura .....	73
Urrundik .....	74
Mendirik mendi .....	75
Izkuntza .....	76
Euskalduna .....	77
Izadi .....	78
Deuna .....	79
Arin aringa .....	80
Biotza .....	81
Gogoz .....	82

Almen .....	83
Etxebarria .....	84
Mendia ederrez .....	85
Ederra goi argiz .....	86
Abeslariak .....	87
Gogartea .....	88
Gose .....	89
Itzlarria .....	90
Ertilarria .....	91
Mendi liraina .....	92
Artzaiñak .....	93
Orleia .....	95
Gose .....	96
Ikaslea .....	97
Zerutarra .....	98
Eder-miñetan .....	99
Zintzoa .....	100
Gaisoa .....	101
Betiko bizitza .....	102
Zintzoa .....	103
Jesusen ikasleak .....	104
Eriotza .....	105
Egun-senti .....	106
Egite onak .....	107
Obiratzea .....	108
Bizitz maitegarria .....	109
Aizkoldo atxur txiki .....	110
Ardia .....	111
Artzaiña .....	112
Ikaslea .....	113
Otoia .....	114
Maisua .....	115
Etxalde .....	116
Goizean goiz .....	118
Eriotza .....	119
Gurutzea .....	120
Lurrikara .....	121

Errukia .....	122
Bidea .....	123
Usoa .....	124
Maxa .....	125
Galburua .....	126
Ereillea .....	127
Ildakoen biztuera .....	128
Jerasa'ko deabruduna .....	129
Pilatosen aurrean .....	130
Pilatosen aurrean .....	131
Ekaitz baretua .....	132
Elbarridun bat .....	133
Espiritu Santuaren etorrera .....	134
Jesus lotuta daroe .....	135
Jesus eriotza .....	136
Odol-jarioduna .....	137
Ildakoen biztuera .....	138
Pilatosen aurrean .....	139
Kanaandar emakumen baten alaba osatzea .....	140
Berbartu gorra osatzen dau .....	141
Ogi ugaritzea .....	142
Jesus Pilatoren aurrean .....	143
Jetsemanin .....	144
Gazte aberatsa .....	145
Jerikoko itsua .....	146
Maastiko langilleak .....	147
Jesus lege batzarrekoen aurrean .....	148
Jesus lotuta daroe .....	149
Tentaldiak basamortuan .....	150
Jesus biztu da .....	151
Magnifikat .....	152
Jesus gurutzean .....	153
Josu berbizturik .....	154
Apostoluak barriro datoz .....	155
Jesusen irudi aldatzea .....	156
Arerioak maitatu .....	157
Arerioak maitatu .....	158

Jesus Nazareten .....	159
Elbarridun bat osatzen dau .....	160
Arerioak maitatu .....	161
Irudi aldatzea .....	162
Seme ondatzaillea .....	163
Seme ondatzaille gizajoa .....	164
Seme ondatzaillea estu egoan .....	165
Seme ondatzaillea .....	167
Ogi ugaritzea .....	168
Judar siñisgogorreï dirautsena .....	169
Bezatako urtegian .....	170
Artzain ona .....	171
Jesusen larrialdia Jetsemanin .....	172
Pariseuekin eztabaidan .....	173



EXCMO. Y RVDMO.

**Fr. Valentín Zubizarreta Unamunsaga, o. c. d.**

RELIGIOSO EJEMPLAR, ESCRITOR TEOLOGO INSIGNE,  
SUPERIOR PRUDENTE, PRELADO SANTO  
FALLECIO EN SANTIAGO DE CUBA EL 26 DE FEBRERO 1946.

NACIO EN MARQUINA-ECHEVARRIA 7 DE NOVIEMBRE 1862. — PROFESO EN LARREA 12 AGOSTO 1880. —  
ORDENADO SACERDOTE 18 DICIEMBRE 1898. — PROVINCIAL DE S. JOAQUIN DE NAVARRA 1900-1903 Y 1912-1914.  
OBISPO DE CAMAGUEY (CUBA) 25 MAYO 1914. — OBISPO DE CIENFUEGOS (CUBA) 24 FEBRERO 1922.  
ARZOBISPO DE SANTIAGO DE CUBA 30 MARZO 1925. — ASISTENTE AL SOLIO PONTIFICIO 13 JULIO 1934.





## EDER-MIN

*Odolaren indarra  
berez doa aurrera  
gizarte bizian,  
berekautan dario  
suzko indar bizia  
azurren artian.*

*Bizitza osasuna,  
bipil, doa odolez  
ezti gozoetan,  
gizona sendo doa  
laguntza biziagaz  
mamin bizietan.*

*Biziaren ardatza  
biotz sendoan dago  
taupada ederrez,  
biotza ta burua  
lagun kutunak dira  
biak maitasunez.*

*Gizonaren bizia  
gora goraka doa  
goizalde argian,  
eguzki almentsua  
zeru undindik dator  
aurrerapidian.*

*Argia ta odola  
biak bat egin dira  
osasun biziaz,  
izarrez indartzen da  
odol gorri gorria  
bizitza maitiaz.*

*Bizitz osasuntsua  
odol gorritik dator  
itzak lagundurik,  
odolaren ederra  
esker-miñetan dago  
biotzez ondurik.*

## ITZA

Gizonaren argia  
urrezko itzez dator  
giza batzarrean,  
itz ederraren tajus  
giza batzar guztia  
argituz lurrian.

Jakituri bikaiña  
itz jariotan dator  
bizitza ondurik,  
argia ta ederra  
jakituriak dakars  
biak alkarturik.

Euskaldun itz bikaiña  
zoramenetan dago  
euzkoen miñean,  
euzko jakituriak  
urratuten dau itza  
alkartasunean.

Gora goraka doa  
euskaldun itz jatorra  
edertasunean,  
giza jakituria  
ardura bitxiz dabil  
izkuntz bikaiñean.

Euzko izkuntz jatorra  
zoramenetan dago  
euskaldun zelaian,  
jakituri ta itza  
biak alkartzen dira  
adimen argian.

Bikainki ta bikainki  
itzak edertzen dabe  
euzkoen izketa,  
izkuntz zoragarria  
agertzen da lur ontan  
itzak eraginda.

## IZARDI

*Ikuspegi altsua  
egiz eder dalarik  
begien aurrian,  
gizonen adimena  
aztoratuta dago  
jakintza bidian.*

*Zerutar goi altsua  
dizdizera ederrez  
dago argiturik,  
urreaz dagoz dizdiz  
zabaldik zabaldira  
ederrez ondurik.*

*Millinoiak izar  
argi urretan dagoz  
izadi aurrian,  
jakituria dager  
urdin zoragarriak  
goizalde guztian.*

*Zeru edertasuna  
arrigarrizko dago  
Jaunaren aurrean,  
dizdizera ederrez  
bitxi omentsuena  
aundien da aidean.*

*Izar zoragarriak  
alkar agurka dagoz  
ederraren bidez,  
urrea ta urdiña  
biak bat egin dira  
zoriontasunez.*

*Zeru eder guztia  
pozez agurka dago  
kristau batzarrari,  
ta lurtar sendi oro  
ametsetan bizi da  
zeru goira aldi.*

## GOIZALDE

Goizalde txit bikaiña  
edermenetan dago  
lilluraz ondurik,  
gorantza begiratzuz  
nai lurrera aditurik  
ederrez jantzirik.

Goizalde zoriontsu  
ederraren ederrez  
amesgarri zagoz,  
izadi ta gizadi  
bitsuak alkartuta  
zuri adi dagoz.

Bururik argiena  
arrituta daukazu  
bitxi eder ontan,  
biotzak maite zaitu  
gogorik onenagaz  
zoramen gozotan.

Ta zu, goizalde argi  
bikaiñetan ederra  
zoriontsu zagoz,  
argia ta ederra  
biak alkartu dira  
zure omen giroz.

Zugadi aintzatsuak  
orlegiz bikainduta  
daukazuz aurrean,  
ta txoriak dabiltzaz  
abesti gozoenez  
alaitasunean.

Gorago aditurik  
zerutik adi dagoz  
urrezko izarrak,  
zerua eta lurra  
edermiñetan dagoz  
eredugarriak.

## ARANBURU

*Zelai orlei zabala  
indartsu zagoz lurrez  
armen bizietan,  
zerutik datorkizu  
almen eder guztia  
bitxi ederretan.*

*Eguzki omentsua  
zerutik datorkizu  
urrezko printzetan,  
dizdizera bikaiñez  
bizirik ederrena  
damotzu benetan.*

*Argiz orleitu zara  
gozamen ederrean  
bizia ondurik,  
buru goitik oiñera  
ederra dariozu  
bizitz indarturik.*

*Zelai ertzik ertzera  
bizia ta ederra  
biak bat egin dira,  
baserritar gaztea  
soiñu otsetan doa  
bizi ospatzera.*

*Erleak egaz dabiltz  
loratik ta lorera  
soiñu ezietan,  
klisk eta klask oratuz  
ezti txit gozoari  
amets gozoetan.*

*Ardi zuri zuriak  
euren bedarra dauke  
zelai orlegian,  
pozez ta kantuz doaz  
janari ona batzen  
bizitz omenetan.*

## JAKINTZA

*Jakintza bikaiña da  
zelai orlei artean  
dizdiz ederretan,  
jakintzak urrea dau  
eguzki oriaren  
printza alaietan.*

*Jakintza zabal zabala  
itxas urdiñez dago  
edertasunetan,  
jakituri almenez  
aidean aurkitzen da  
urrezko aizetan.*

*Itxasoa gogo onez  
janaria eskeinka  
aurkitzen da biziz,  
berezki da emonkor  
zeruko almenagaz  
esker-min gurariz.*

*Jakitura dauka  
luzeraz ta zabalez  
ertzirik bagea,  
bere sema-alabaz  
gizadia otseinduz  
arduraz betea.*

*Munduko sail nausia  
bere dau itxasoak  
jaubetasun onaz,  
beraren babesean  
zaintzen ditu erriak  
maitasun onenaz.*

*Lurtar erri nausiak  
bizi billa doazi  
urtegi nausira,  
jakintzaz orniduta  
aurkitzen dabe oro  
lurrera begira.*

## SORMEN

*Itz bedeinkatua da  
sormen agurgarria  
izardi aurrian,  
argia ta bizia  
egiz, gogotsu, dabiltz  
izarren artian.*

*Urdiña ta urrea  
alkarkide ein dira  
oztin bardingean,  
izar toki onena  
goi urdiña bera da  
almen bikaiñean.*

*Jakituri argia  
goi izarretan dago  
dizdiz bikaiñetan,  
gauaren baltz illuna  
urrez argitzen dabe  
lurtarren pozetan.*

*Zerua eta lurra  
sormen bikaiña dira  
Jaunaren menpean,  
egunez zoragarri  
ta gabaz arrigarri  
izarren indarpean.*

*Lurra bere izatez  
izar argitan dago  
gabeko orduetan,  
edertu da goi oro  
zerutar jakituriz  
izarren printzetan.*

*Eder dana gozatzen  
gizona dago lurrez  
Jaunaren aurrian,  
adimen ta biotzez  
irudi bikaiña da  
sormenarenpian.*

## TXIMISTONDO

*Tximistondo maiteak  
aldapa barnean dau  
bizitza kutuna,  
orlegi ta ederra  
bere oinpean dauka  
bizitz-poztasuna.*

*Mendi bizkar sendoa  
baratza biurtu da  
atxurren indarrez,  
zugatza ta lorea  
bere bereak ditu  
lanaren ederrez.*

*Prisku, sagar, madari  
bizi opaka dagoz  
ondo egiñari,  
arnari eder danak  
esker-miñetan dagoz  
gizonen lanari.*

*Bizitz gozoa dago  
Tximistondo aldean  
arnariz ondurik,  
lur biotz aberatsak  
ateak zabalduaz  
lana ederturik.*

*Lora zuri zuriak  
milletan eder datoz  
zelai orlegian,  
alerik gozoenak  
zugatz orleian dagoz  
bizitasunian.*

*Eguzki ta euria  
biak tarteka dabiltz  
lurra ondu nairik,  
janari ta edari  
biak zerutik datoz  
Aitak bialdurik.*



## BIZIA

*Egiz lora bizia  
lur santu onetan  
gizonaren bizia,  
gizona jaunduten dau  
lan zuzenaren bidez  
jorratuz bidia.*

*Era askoetara  
agertzen da bizia  
gure lur maitian,  
gizonaren buruan  
lenen lenengo bikain  
egizko zorian.*

*Adimen zoragarritz  
zuzentzen dau gizonak  
bizitzea lurrez,  
arria ta mendia  
giza barru dabilatzaz  
zoriontasunez.*

*Kontu jakintz bikaiña  
giza buruan dago  
ederrez ondurik,  
jakituri ta bizi  
alkartuta doazi  
gizonak ondurik.*

*Bizia zabal zabal  
dagersku itxasoak  
ura urdindurik,  
arrain mueta danak  
arroki, bizi dira  
egoak zabalik.*

*Bizitz orleia dago  
zoramen ederrez  
mendi magaletan,  
ta txori kantariak  
alaitzen dabe lurra  
zoramen bizitan.*

## UDABARRIA

*Euzko udabarria  
berez da maitegarri  
barneko liraiñez,  
bizia ta ederra  
bitzuek alkarturik  
zoriontasunez.*

*Zerutar goi guztia  
zoramenetan dago  
urrezko printzetan,  
ederti maite miña  
izartik izarrera  
zabalduz egitan.*

*Izardi nagusiak  
urretzen dau zerua  
giro beillegian,  
zerua askatasunez  
bikaindu dau Jaunak  
bizitz onenian.*

*Itxas urdin bikaiña  
so bikaiñetan dago  
ortzira begira,  
millinoiak izarrak  
agurtzen daba ura  
poztasun girora.*

*Itxas ertzetan dagoz  
eder giro bikaiñez  
zelai orlegiak,  
aldapa bikaiñetik  
agurtzen dabe ura  
abestuz egiak.*

*Eder ta maitasuna  
alde bietan dagoz  
ontasun garbian,  
zerutar izardiak  
ontzen dau itxasoa  
beraren senian.*

## GOGO MIN

*Gogo-min itz jatorra  
adimenetan dago  
gizonen lagungarri,  
beartsuei lagunduz  
bizia onduten da  
giza bizigarri.*

*Gogoan dau gizonak  
sendiaren bizia  
buru garunetan,  
gogoangarria da  
odolaren odola  
semeren zaiñetan.*

*Semearen bizia  
gauza ederrena da  
aitaren buruan,  
semea ta bizia  
gogoz alkartzen ditu  
buru argitsuan.*

*Gogoko zaitut Jauna  
egunsenti onetan  
maitasun bidean,  
maite gogo guztia  
zuri begira daukat  
bizitz ederrean.*

*Gizonaren biotza  
maite bizitan dago  
gizartera adi,  
egia eta itza  
alkarregaz dabiltzaz  
egizko irudi.*

*Maitasunezko itza  
egi bidez ontzen dau  
gizonen gogoak,  
biotza eta lana  
alkarregaz doazi  
egitez landuak.*

## ARGIA

Maitegarria zara  
egunsenti argia  
goizeko omenaz,  
izarrak goruntz doaz  
dizdizera beiñetan  
lurra agurtuaz.

Urrezko eguzkia  
abegi onenagaz  
agertuz zerutik,  
zoramenetan dago  
zeruaren urdiña  
ederrez jantzirik.

Argiaren ditzirak  
lenen lenen zerua  
agurtu dau pozez,  
eguzki ta urrea  
urdiñez jantzi dira  
zoramen ederrez.

Urdin aratz orretan  
maite girotan dago  
urrezko argia,  
gogoz alkartu dira  
bitxirik bikaiñenak  
alkarri begira.

Eguzki ta itxaso  
maite miñetan dagoz  
alkar gozarturik,  
arraiñak gora gora  
egaz dabiltzaz pozez  
urak urraturik.

Eguzki ongillea  
mendirantz adi dago  
argi dirdaietan,  
mendi egal orleiak  
ames gozotan dagoz  
urre dizdizetan.

## ARIZTI ADIZKIDE

*Euskaldun ariztia  
mendi orleian dago  
bikaiñez ondurik,  
ederretan ederra  
zoramenetan dago  
dizdizeraturik.*

*Eguzkia zerutik  
maitekiro jatorko  
urre gorrietan,  
aritzaren orriak  
gora gora begira  
dizdiz ederretan.*

*Zerua eta lurra  
gogoz alkartu dira  
euskaldun mendian,  
lurra eder dalarik  
zerua ederrago  
izarren artian.*

*Aritz bat Bizkaian da  
ederretan ederra  
euzko legietan,  
euzko erri antzera  
biak bat egin dira  
egizko bidetan.*

*Erriz erri doazi  
Kurutz eta zugatza  
alkartasunean,  
zugatza eder dala  
Kurutzta bikaiñago  
euzkoen artean.*

*Euskaldun ariztiak  
bikaintzen ditu lurrak  
baso-mendietan,  
izarretara adi  
aurkitzen da aritza  
mendi gaillurretan.*

## ARIZMENDIARRIETA TAR JOSEMARIA

Barinagatar seme  
Iturbeko lorea  
indarrez beterik,  
Maxaren magalpean  
artu zendun bizia  
argiak ondurik.

Aurrez aur zendukan  
Euskalerra guztia  
bizitza lanetan,  
gizonaren biziak  
gogoz deituten eutzun  
biotz barrenetan.

Mondragoi izango zan  
zure bizitz arloa  
gogorik onenaz,  
Euskalerra guztia  
Mondragoira adi dago  
lan eder orregaz.

Gizonaren biotzak  
urre gorri dario  
indarrak poztuta,  
buru argitasuna  
jakituriz ba doa  
itzak indartuta.

Mendi ta lanteietan  
lora barriak datoz  
jakituri bidez,  
gora goraka dator  
Iturbeko lorea  
gizonei on eiñez.

Lantegi maitegarri,  
zureak dira goiak  
indarrez ondurik,  
gora gaurkoz Mondragon  
ta erriaren poza  
bizitz barriturik.

## ALDATZ GORA

*Mendi gorantza doa  
aldatz gora jatorra  
euzko lurraldean,  
alderdi danetatik  
zoragarri agertuz  
eguzki aurrean.*

*Zelai txit orlegia  
loraz beterik dago  
euzko parnasoan,  
nora nai aditurik  
ederra ta bitxia  
daroaz altsoan.*

*Gizon olerkaria  
aldatzak gora doa  
bikaintasunean,  
alboetara adi  
adimena argituz  
edertasunean.*

*Gora ta ederrago  
agertzen da guztia  
bikaintasunean,  
nora-nai begiratz  
aintzaz ondurik dago  
bizia lurrean.*

*Gora gora igonez  
edertasun barriak  
dagerskuz aurrian,  
zerua eta lurra  
biak bat egin dira  
goiko tontorrian.*

*Maxaren puntan dago  
euzko seme jatorra  
abesti izpitan,  
zerua eta lurra  
biak bat egin dira  
eguzki argitan.*

## BERRI EMOILLEA

Lurtar izakietan  
gizona da nagusi  
egizko bidetan,  
izaki oroz goitik  
sortu eban gizona  
jakiturietan.

Lurtar gauza guztiak  
gizonarentzat dira  
otseintza bidean,  
Jaungoiko maitasuna  
gizon alde egoan  
lurtarren artean.

Giza bizitza dago  
goi argiz bikaindurik  
edertasunian,  
gizona bere sortzez  
Jauna otseintzeko da  
lurreko bizian.

Giza Jainko zaleak  
alkartu bear ditu  
gizonak lurrian,  
Jaunaren goi argia  
eskarrez artu eben  
lan orren bidean.

Jainkoa adi dago  
gogorik onenagaz  
giza bizitzara,  
argi ta maitasuna  
opalduz gizonari  
bere lanetara.

Gizona gertu dago  
Barri ona zabalduz  
Jainkoa gurtzeko,  
asmorik ederrena  
egi eskeintzea da  
gizonarentzako.



## MAXA

Urregorritzko zara  
mendi bikain altsua  
lurraren bizian,  
zure dizdiz ederra  
tontorrik tontor doa  
mendien artian.

Nora-nai begiratzuz  
ederra dariozu  
izar agurkeran,  
zure liraintasunak  
dardar dagi orleian  
eguzki sorreran.

Aizea dozu lagun  
udabarri ez-tian  
Bizkaiko lurrian,  
bizia ta ederra  
zuga alkartu dira  
euzkoen artian.

Maxa mendi bikaiña  
lurra goratzen dozu  
edertasunagaz,  
jakituri altsua  
zure erraietan datza  
almen guztiagaz.

Mendi zoragarria  
Euskalerrian zagoz  
ortzira begira,  
zure liraintasuna  
euzko jendearentzat  
urrezko egi da.

Gabaz izarrak dizdiz  
egunez eguzkia  
daukazuz aurrian,  
ederraren bizia  
argitik artu dozu  
urrezko mendian.

## BIOTZ BARNEAN

*Biotz barnean dago  
bizitz oiñarria  
gizonen bizian,  
itza eder dalarik  
bizia ederrago  
urrezko bidian.*

*Odol gorria dabil  
tipi eta taupa pun  
gizonen zaiñetan,  
ederrena eskeintzen  
gizadi guztiari  
zentzun onenetan.*

*Biotza, gogor, dabil  
beren eginbidean  
zurtasun guztiaz,  
beraren amets dana  
maitez laguntzea  
gizonei biziaz.*

*Biotz txit maitekorrak  
adimenez batera  
ontzen dau bizia,  
gizadiko arloan  
biok dira gidari  
opalduz argia.*

*Biotz ta adimena  
lagun kutunak dira  
arlo nagusian,  
biok urretzen dabe  
giza bizitz ederra  
alkartasunian.*

*Argi eta maitasun  
gogo onez dabiltzaz  
lanaren bidean,  
izar bi onen bidez  
bizia aurrera doa  
edertasunean.*

## EUSKERAZ MINTZATZEN

*Izkuntz miragarria  
agertu ziñan lurrez  
denpora onean,  
itzez ta joskeraz  
ederra dariozuz  
jakintz bikaiñean.*

*Zentzunezko erriak  
gogoz, darabil lurrez  
izkuntz leiñargia,  
gero ta ederrago  
jakituri bidetan  
eginik bizia.*

*Euzkotarren izkuntzak  
gero ta bikaiñago  
dagersku bizia,  
burua ta biotzak  
biak goratzen dabe  
zentzun onenian.*

*Argiz onduta dago  
bere bizitz guztia  
edertasunian,  
joskera bikaiñena  
onartu dau Euskerak  
bizitz ederrian.*

*Euskaldun adimenak  
onartu dau izkuntza  
jakituri onez,  
jakintzaz apaindu dau  
alkartasun bidea  
zoriontasunez.*

*Euskera miragarri,  
argiak zuzendurik  
zabiltzaz lanian,  
jakituri ta itzak  
onduten dau bizia  
zure izatian.*



BARANDIAN'DAR JOSE MIGEL

Mundu zear zabaldu zendun  
jakituriaren itza  
zugaz batera dardaratu zan  
euskaldunaren jakintza.

## EDERRAREN BILLA

*Gizonaren adimena  
egi billa bijoa  
bizitza onetan,  
egi barik gizona  
ezin bizi daiteke  
bakezko bidetan.*

*Egia ta ederra  
alkartu bear dira  
osasun bidean,  
gizonaren gogo  
ezin bizi daiteke  
arantza artean.*

*Jakituri zuzena  
ederretan eder da  
gizonen bizian,  
egibide zuzenak  
onduten dau gizona  
edertasunian.*

*Gizonen izatia  
egirako sortu da  
zuzentasunean,  
burua ta biotza  
bitzuak alkaturik  
bide ederrean.*

*Bakez bizi izateko  
betor argitasuna  
ederrez ondurik,  
egiz eta adorez  
gizonaren bizia  
ederrez jantzirik.*

*Ederra ta egia  
lora bikaiñak dira  
gizonen bizian,  
biok lortuko dabe  
zuzentasun laguntzaz  
bakea lurrian.*

## MAITASUN GIDARIA

*Izadi aintzatsuak  
maitasuna dario  
ertz guztietatik,  
jakituri ederra  
izarretatik dator  
biotzez ondurik.*

*Zeruko izardia  
maite girotan dago  
urrezko jantzita,  
urdiña ta urrea  
eder eskeinka dagoz  
lurrera begira.*

*Maite giroa dator  
zeru goitik lurrera,  
urrezko argitan,  
eguzkiak poz pozik,  
urrea zabaltzen dau  
giza biotzetan.*

*Gau urdin ortz garbia  
maite girotan dago  
urdintasunian,  
biotz zabal zabalez  
maite dau izadia  
edertasunian.*

*Txori abeslariak  
zoraturik dabilnaz  
maitezko soiñutan,  
arat onat doazi  
egunsenti argian  
kantu liraiñetan.*

*Lurra gora goraka  
amets ederrez dago  
bizitza barrian,  
lora zuri zuriak  
maitasuna darie  
zelai orlegian.*

## ONGI-NAIA

*Ongi-naia lurrean  
itz bedeinkatua da  
laguntzaz ondurik,  
anaia maitatzea  
egiz da zoragarri  
bizia zaindurik.*

*Gizona egi billa  
gogoz, dabil bizian  
ontasun bidean,  
zuzentasuna nai dau  
errukizko egintzaz  
bizien artean.*

*Ongi-naia maite dau  
giza bizitz artean  
zuzentasunagaz,  
on egin gizonari  
estura aldietan  
laguntasunagaz.*

*Ongi-nai amultsua  
biotz alkartzen doa  
bizia edertuz,  
gizonen ongi-naia  
bitxi bikaiñena da  
alkarri lagunduz.*

*Gizarteko bizia  
maite miñetan dago  
alkartasunian,  
ona eta ederra  
egitan gura ditu  
anaien artian.*

*Benetan, ederra da  
onginaia lurrean  
gizonen artean,  
maitasuna da egiz  
biziaren sustraia  
bizitz ederrean.*

## BIOTZ

Biotz goxo goxoa  
bizitz jokabidetan  
aipagarri zara,  
maitasuna bikain da  
bizitzako lanetan  
onak eraginda.

Bizitz zeregiñetan  
argiz ta maitasunez  
dabiltzaz gizonak,  
biotz egizaleak  
laguntza eskeintzen dau  
ausnartuz bideak.

Biotzak onduten dau  
zuzentasun bidea  
giz arazoetan,  
biotzak dakar ona  
argiak zuzendurik  
egizko bidetan.

Gizonaren biotza  
maite-miñetan dabil  
zuzentasun bidean,  
egia ta ederra  
gozartu gura ditu  
gizonen aurrean.

Biotz maitegarriak  
ez dau gura guzurrik  
bizitzaren aurrez,  
giza bizitz artean  
ontasun lokarriak  
gura ditu lurrez.

Egirik ederrenak  
etorri bear dabe  
biotz barrenetik,  
onginaietarako  
sortua da biotza  
egizko bidetik.



## ZURTASUN

Zurtasun gogo eder  
giza asmo bikaiña da  
bizitza arloan,  
zurtasunez ontzen da  
gizonaren bizia  
bizitz arazoan.

Zurtasunak ontzen dauz  
bizitzako bideak  
zuzentasunean,  
zurtasun ta argia  
giza gidari dira  
edertasunean.

Jakiturizko itzak  
bear ditu gizonak  
bizitz batzarrean,  
argia ta zuzena  
bear ditu gizonak  
ongille bidean.

Euskaldun izakia  
zurtasun zalea da  
bizitza maitian,  
egia ta argia  
maite dauz euskaldunak  
bizitz ederrian.

Zuzentasun argiak  
onduten dauz bideak  
adimen barnean,  
burua ta biotza  
bijoaz alkarturik  
lanaren aurrean.

Lanak ondu bear dau  
gizonaren bizia  
egite on bidez,  
buruko zurtasuna  
izar egokia da  
zoriontasunez.

## GOMUTAGARRIA

Gomutagarria da  
gizonaren bizia  
lur santu onetan,  
gauzarik ederrenak  
ondu bearreko da  
bizitz ederretan.

Gomutagarria da  
giza bizitz argia  
lurreko zelaian,  
otoi zoragarriak  
egin bear dauz goizez  
sendi bikaiñian.

Gomutagarria da  
gizonaren bizia  
sendi ederrean,  
guztiak alkaturik  
maite giro ederrez  
zorion bidean.

Gomutagarria da  
egunsenti ederrez  
baserri maitia,  
seme guztiak pozez  
gora gora dabilnaz  
aintzatuz bizia.

Gogoangarria da  
euskaldunen etxea  
eguzki sorreran,  
argia eta poza  
zeruetatik datoz  
egun-sentikeran.

Gogoangarria da  
euzko alkartasuna  
bizitz ederrean,  
aitaren maitasuna  
semeengana doa  
egi onenean.

## ENTZUMEN

*Entzumen adikorra  
egiz da goragarri  
gizon almenetan,  
abesti bikaiñenak  
oartu gura leukez  
egunsentietan.*

*Egunsenti ezitia  
amesgarria dator  
soiñu ederretan,  
izadi omengarri  
dizdizera ederrez  
dagersku goizetan.*

*Txori abeslariak  
arro dabilnaz goian  
zugatz adarretan,  
egaz eta kantuz  
alaitzen dabe lurra  
goiz ta arratsetan.*

*Gizonen entzumena  
zurtu da goizaldian  
oe bikaiñean,  
belarriak zur dagoz  
sosoari entzuten  
izarren aurrean.*

*Gizona ta txoria  
lagun kutun ein dira  
abesti artean,  
itza eder dalarik  
kantua ederrago  
bien bitartean.*

*Belarri entzumenak  
zoramenetan dagoz  
eguzki sorreran,  
kantuz ta maitasunez  
bizitza ondurik  
gizontasuneran.*

## BIDERTZ

*Bidertzetik bidertze  
loraz beterik dago  
zelai orlegia,  
apainduri ederrak  
guztiz bikaindu dabe  
zelaiko bidia.*

*Zeru goi urdiñean  
izar nausia dago  
dizdiz ederretan,  
urdiña ta argia  
biak bat egin dira  
edertasunetan.*

*Onginaia dario  
izar zoragarriak  
urrezko printzetan,  
jakintzazko bidetan  
zelaia ontzen doa  
urre izpietan.*

*Zelaiaren bedartzak  
gora gora doazi  
edertasunagaz,  
usain gozozko lorez  
jantzi da zelai oro  
bikaintasunagaz.*

*Zelai bikain orleia  
gora ta ederrago  
eguzki izpitan,  
ederraren ederrak  
omendu dau lur dana  
printza bikaiñetan.*

*Bidertz apal apalak  
bitxiz ondurik dagoz  
edertasun urrez,  
zelai bikaintasuna  
edermiñetan dago  
zoriontasunez.*

## EUSKERA

*Eleetan bikaiña  
aurkeztu zara lurrez  
izkuntza bidean,  
itzez zara ederra  
zentzunez jakintsua  
zeure izatean.*

*Zure joskera piña  
jakiturizkoa da  
argi guztiagaz,  
sorreraz zara bikaiña  
ondo aukeratua  
egiz ta gatzagaz.*

*Eskolaz ta mendiz  
ondo, ornidu zagoz  
jakintsu aurrian,  
zure izatez zara  
urrezko izkuntza  
euskaldun artian.*

*Jakintsuen sen ona  
berezki dariozu  
izate guztian,  
argia ta ederra  
alkartuta daukazuz  
zure izatian.*

*Bertsolari jatorrak  
seme kutunak dozuz  
jakintzaz ondurik,  
plazarik plaza doaz  
zure doai ederrez  
jakintza agerturik.*

*Buruz eta biotzez  
bardin bagea zara  
izkuntza saillean,  
jakintsu piñak dozuz  
baserri ta eskolaz  
zure jardunean.*

## MINTZAIRA

Izkuntz zoragarria  
sortu eben euzkoak  
zelai bitartean,  
lurra eder dalarik  
izkuntza bikaiñago  
sendien artean.

Euzko seme jatorrak  
goi-buru zoragarriz  
apainduak dira,  
buru zurtasunez  
argitu eben lurrek  
izkuntza sorrera.

Euskera jakintsua  
buruz eta biotzez  
dagersku ondurik,  
zurtasun on oiua  
dauka bere izatez  
argiz ederturik.

Zure mamin bizia  
sakon ta bikaiña da  
izkuntz izatian,  
euzko seme jatorrak  
argiz sortu zaitue  
bizitza onian.

Mintzaira agurgarri  
izar eder bat zara  
izkuntzen artean,  
sorlari on bikaiñak  
azaldu zinduezan  
sormen ederrean.

Zentzuna ta argia  
daukazuz zure baitan  
ederrez josirik,  
izkuntza jakintsua  
edermiñetan dago  
urrezko jantzirik.

## ZUGADI

*Mendi ederrak ditu  
Euskalerra maiteak  
beren babesean,  
lurralde on bikaiñez  
ondurik dau bizia  
inguru danean.*

*On Egille Altsuak  
jakintzaz ondu zitun  
euzko lur maiteak,  
zoragarriak dira  
euren bikaintansunez  
euzko lur orleiak.*

*Arrua eta tontor  
gutziz bikaiñak dira  
edertasunean,  
Gipuzku ta Bizkaia  
Araba ta Nabarra  
anaitasunean.*

*Ta zu, urrezko biotz,  
ederretan ederra  
ei zara lurrean,  
izar gorriak baiño  
bikaiñagoa sortzez  
edertasunean.*

*Buru argi zuzenak  
alkartasuna dakar  
gizadi zorian,  
argia ta egia  
lorerik bikaiñenak  
euzko izatian.*

*Buruaren laguna  
urrezko biotza da  
alkartasunian,  
bien arte sortzen da  
gizon lora bikaiña  
bizitz ederrian.*

## ADI ADI

*Adi adi ei dagoz  
giza egizaleak  
zuzentza bidean,  
egia ta gizona  
biak bat egin dira  
euskaldun lurrean.*

*Egiz ta maitasunez  
ondu dira gizonak  
euskaldun baratzan,  
bitxirik ederrenak  
jaubetu dira lurrez  
euzkoen zuzentzan.*

*Euzko seme zindoak  
egira adi dagoz  
zuzentasunean,  
bizitza ongillea  
gogo onez maite dau  
ontasun bidean.*

*Maitasun egizkoa  
daroa euskaldunak  
bizitz ederrean,  
egira adi dago  
bizitza zuzenagaz  
ongi etorrean.*

*Euzkoa adi adi  
gogoz aurkituten da  
lur omengarrian,  
mendi gaiñez eder da  
itxasoz urdin urdin  
bikaintasunian.*

*Ederrenetan eder  
aurkitzen da bizia  
euskaldun lurrean,  
maitasuna dario  
euzko bizitz ederrak  
gizonen artean.*





## MENDIRIK MENDI

*Mendirik mendi doaz  
eiztari trebeak  
goizian goizetik,  
ederra ta urdiña  
zorabiotan dagoz  
biak alkaturik.*

*Giza seme azkarrak  
zur dabilnaz begira  
aldatz orleietan,  
erbi kantu zorrotza  
jatorke belarrira  
erbi usaiñetan.*

*Gora ta ederrago  
aurkitzen da mendia  
aize gozoetan,  
erbi zur-gorriak  
bedar gozotan dabilz  
jate bizietan.*

*Mendirik mendi doaz  
eiztari almentsuak  
goizalde bikaiñez,  
dinbi danba dabilnaz  
ekiñean sututa  
erbien omenez.*

*Zerua eder dago  
urrezko eguzkiaz  
gutziz bikaindurik,  
erbiak gogo onez  
sasirik sasi doaz  
bizia zaindurik.*

*Euskaldun eiztaria  
zoramenetan dabil  
mendi bizkarrean,  
gaurko egun bikaiña  
egiz, zoragarri dau  
erbien aurrean.*

## IKASTEN

*Giza jakituria  
ikas bidez sortzen da  
gizonen bizian,  
jakituririk bage  
gizona kaskarra da  
bizien artian.*

*Jakituri bikaiñez  
biziz edertuten da  
giza batzarrean,  
euzkotar gaztedia  
gogoz, dabil ikasten  
jakintza bidean.*

*Jakituri ta lana  
egitez alkaturik  
aurrera doazi,  
gizonak onduten dau  
jakituri argiaz  
lurra bizi bizi.*

*Ikasiak ondu dau  
euskaldunen bizia  
lur bikain onetan,  
izkuntz zoragarria  
ondurik maitasunez  
ekintz ederretan.*

*Mundu zear joan da  
euskaldunen izkuntza  
egaz bikaiñetan,  
lurra argitzen dabil  
egokira onenaz  
itzaren bidetan.*

*Euskaldunen izkuntza  
jakintzaz ondua da  
gurari onenaz,  
bere senez eder da  
itzlaur ta olerkiz  
arima garbiaz.*

## BIZIAN GORA

*Bizian gora doa  
euzko seme jatorra  
bizitz eder ontan,  
buruzko jakituriz  
gizona gorako da  
bizitz ederretan.*

*Buruz eta biotzez  
sortu eban Jainkoak  
gizona lurrean,  
izatez bikaiña da  
gizonen irudia  
eguzki menpean.*

*Gizonen zeregiña  
berezki aundia da  
lur santu onetan,  
lurra eder dalarik,  
zerua bikaiñago  
goi zorionetan.*

*Gizonen elburua  
oroz-goitikan dago  
zuzentasunean,  
bakea eta poza  
bizi bizirik dagoz  
Aitaren etxean.*

*Aitaren etxerako  
sortua da gizona  
maitasun guztiaz,  
lurtar seme jatorrak  
gorako egin dira  
bizitz maitatiaz.*

*Jaungoiko maitetsuak  
beragaz gura gaitu  
goi zorionian,  
maitasun zoriona  
eskeinduten daukagu  
zeru ederrian.*



## ANAITASUNA

*Egitan bikaiña da  
itz txit maitegarria  
gizonen artian,  
euzko lur aintzatsuak  
bere bereak ditu  
semeak etxian.*

*Alkartuta nai ditu  
seme-alaba danak  
bikaintasunean,  
maitasun onginaia  
lora bikaiñena da  
euzko baratzean.*

*Euzko mendi orleiak  
batasunean dagoz  
ederrez ondurik,  
maite giroz dagerskuz  
erri bikain guztiak  
onginaiz beterik.*

*Euskaldunen giroa  
ederrez ondua da  
maitasun giroan,  
berezko deia dauka  
alkartasunerako  
biotzen ondoan.*

*Euskaldunen gogoa  
egiaz argiturik  
pozez aurkitzen da,  
anaiak maite ditu  
beren odolokideak  
biotz esanera.*

*Euzkotarren erria  
berez anaikorra da  
entzumen onean,  
erri eta gizadi  
biak batera dabiltz  
ontasun bidean.*

## ETXEBARRIA

*Egiz izen ederra  
erri onek daukana  
biotz erraietan,  
benetan pozgarria  
barria izatea  
errai bikaiñetan.*

*Euskal izkuntz bikaiñez  
indartu dau bizia  
edertasunian,  
jakiturizko izkuntza  
dauka Etxebarriak  
biotzen erdian.*

*Egiz ezilkorra da  
izkuntz ain leiñargia  
bizitza maitean,  
argiz eta biotzez  
ondua da izkera  
euskera beinean.*

*Etixerik etxe doa  
izkuntz zoragarria  
bizia bikaintzen,  
munduko lorea da  
euskera aintzatsua  
biziak alaitzen.*

*Ta zu, Etxebarria,  
erriz bikaiña zara  
zeure izatean,  
bidebarri luzea  
begiz bikain daukazu  
otseintza bidean.*

*Mendi zoragarria  
daukazu aurrez aurre  
omen ederrian,  
Euskadiko lorea  
Maxa aintzatsua da  
euzko lurraldian.*

## IZARDI

Euskal itz aintzatsua  
egitan eder zara  
euzkoen artean,  
argia ta indarra  
daroazuz zuregaz  
zeru ederrean.

Zeru urdin guztia  
urregorritu dozu  
dizdira bikaiñaz,  
urdiña ta urrea  
gabaz alkartu dira  
zoriontasunaz.

Ederraren ederra  
agertu da gabean  
gizonaren pozez,  
zeru goi almentsua  
jakituriz ondu da  
urrezko izarrez.

Zerua kantuz dago  
ederraren bitartez  
ortzia bikaintzen,  
jakituri altsua  
sortu da gau erdiean  
urdiñak omentzen.

Gizona adi dago  
edermen goi ortara  
bitxiz arriturik,  
biotzak dardar dagi  
ederraren ederrez  
txit dardaraturik.

Izardi zoriontsu  
millatan eder zara  
dizdiz bikaiñean,  
izketa ederrenak  
goratu gura zaitu  
almen ederrean.

## ESKARIA

*Eskari ontan dago  
giza seme jatorra  
Jaunaren aurrean,  
egirik ederrenak  
gogoz eskatzen ditu  
uste onenean.*

*Egi salbatzailleak  
nai ditu lur onetan  
lortu Aitagandik,  
eskaria gogo onez  
zuzentzen dau zerura  
biotz biotzetik.*

*Gizonaren bizia  
egitan da bikaiña  
lur eder onetan,  
ta Jaunaren laguntzaz  
bikaiñago eiten da  
zeru goienetan.*

*Lurra eta zerua  
gizonentzako dira  
Jaunak lagundurik,  
giza seme gaisoak  
gora begira dabiltz  
indarrak bizturik.*

*Zerutar goi bizia  
Aitaren esku dago  
aunditasunian,  
giza seme jatorrak  
laguntasuna bear  
edertasunian.*

*Eskari ontan dabil  
gogorik onenagaz  
gizona lurrean,  
ta Jaungoiko laguntza  
zerutik datorkio  
bizitz omenean.*

## LAN TA LAN

*Gizona lan barik  
bizitz bikain onetan  
erdi illik dago,  
lanaren ardurea  
bear bearreko da  
bizia ontzeko.*

*Lan-toki onak dagoz  
euskaldun mendietan  
orlegiz jantzirik,  
zugadi aintzatsuak  
eguzkia agurtzen  
ederrez ondurik.*

*Arizti aintzatsuak  
gora goraka dagoz  
mendi bizkarrean,  
balio bikaiñena  
gerrietan daroe  
sendotasunean.*

*Euzko mendi gaillurrak  
irriparreka dagoz  
eguzki aurrean,  
aintza eta gorasun  
zeruari opaka  
bizitz ederrean.*

*Solo zabal ederrak  
atxur-lan billa dabiltz  
mesede bizitan,  
euskal baserritarra  
ezin da geldu egon  
barrizanetan.*

*Baratza goi-zabala  
arnariz bete dago  
luze-zabalean,  
atxurrari eskerrak  
lurra eskermindu da  
ondasun bidean.*



## EDER

*Ederraren ederrez  
zoramenetan dago  
itxaso aldea,  
urdiña bikain dager  
itxas zabal guztian  
eskarrez betea.*

*Itxas-ontzi zuria  
armen bizitan doa  
urak astindurik,  
aize giro onena  
gogoz, dabil kantari  
urak agurturik.*

*Itxas arrain nausiak  
adore biziz dabiltz  
ur-gaiñean saltari,  
izontzi nagusia  
danen artean doa  
uren garailari.*

*Arrain nausi sendoak  
ezeren bildur barik  
dabiltzaz uretan,  
itxasoko nagusi  
gogoz, aurkitzen dira  
uridin zabaletan.*

*Eder da itxasoa  
eder da zero goia  
alkar omendurik,  
itxasoa arraiñez  
zerua izarrez  
ederrez ondurik.*

*Euskalerra guztia  
zoramenetan dago  
jakintza bikaiñez,  
oroz goitik daroa  
gizontasun bikaiña  
buruz ta biotzez.*



## LEKUONA MANUEL AGURGARRIA

Lur oni eskein zeuntsan  
oro apaltasunez  
zeu, ziñan guztia,  
euskaldun gizadia  
euskaldun gizadia  
nai zendun zoriondu  
eskarrez betia.

## ZELAIA

*Euskalerrri guztia  
orlegiz inguraturik  
bikaiñetan dago,  
dizdizera ederrez  
ernemiñetan dauka  
biotza oparo.*

*Zelai orlei bikaiña  
lora zuriz jantzi da  
bikaintasunian,  
ederretan eder da  
orlegi ta zuria  
alkartasunian.*

*Mendi egal gailena  
zelaiz dago ondurik  
zeruaren aurrez,  
zerua ta orleia  
alkar bikaintzen dira  
izarren ederrez.*

*Soloaren aurrean  
zelai barria dago  
dizdiz ederretan,  
giza segalaria  
ekiñaletan dabil  
ebagi lanetan.*

*Zelai bedeinkatua  
eskermiñetan dago  
eguzki aurrian,  
egunik egunera  
zoramenetan doa  
bikaintasunian.*

*Zerua ta zelaia  
on-giroetan dagoz  
alkarri begira,  
lurra eder dalarik  
zerua ederrago  
goi-zorionian.*



## IKASTOLA

*Itz almen aundikoa  
euskaldun parnasoan  
jakintzaz ondurik,  
ikasi ta ikasi  
dabiltz euzko buruak  
egiaz ondurik.*

*Ikastola argian  
urrezko janzten dira  
euskaldun semeak,  
jakituri bikaiñak  
erriz zuzentzen dau  
ondurik bideak.*

*Euskaldun ikastola  
urrezko doaia da  
euzko lur maitian,  
gizontasuna dakar  
erritarren artera  
zuzentasunian.*

*Ikastola aratzak  
euskaldun gizadia  
onduten dau argiz,  
euzko jakituria  
ikasbidetik dator  
almen bizi biziz.*

*Euskaldun gizartea  
jakituriaz dago  
guztiz apaindurik,  
etxe zuri zuriak  
ta arizti gailenak  
datoz ikasitik.*

*Ikastolak ondu dau  
euskaldunen bizia  
lur bikain onetan,  
zetzuna orbiztu  
jakituriz ondurik  
buru bikaiñetan.*



## MENDIGUREN

*Mendi gailen batetik  
edertasun dario  
inguru guztiak,  
zerua da ederren  
urdin aratz aretan  
ondurik argiak.*

*Zeru bardin bagea  
urdiñez ta urrez  
zoriontsu dago,  
ederra ta zerua  
biak bat egin dira  
oparo oparo.*

*Urdiña eder dala  
urree ederrago  
dizdiz bikaiñetan,  
ertilari batzarra  
dirudi goi guztiak  
edertasunetan.*

*Itxaso ta ibaiak  
edermiñetan dagoz  
apainduriagaz,  
eguzkia adi dago  
itxaso urdiñera  
dizdira onenaz.*

*Mendiguren bikaiña  
ederretan eder da  
izadi aurrian,  
arizti bikaiñenak  
onduratuten dabe  
aunditasunian.*

*Mendi goitik begira  
edermiñetan dago  
izadi maitia,  
usain gozozko lorez  
baratza on biurtu da  
euzko izadia.*

## ITXASALDE

*Itxasalde bikaiña  
edermiñetan dago  
astelen goizian,  
egun zoragarria  
agertu da goizez  
izarren aurrian.*

*Itxas zabal bikaiña  
zoramenetan dago  
urdin dardaretan,  
nora-nai begiratzuz  
zoramena darío  
edertasunetan.*

*Gora begira dago  
zeruaz arrituta  
izarren almenez,  
izarrak goitik bera  
itxasoa agurtzen  
ederraren pozez.*

*Zeru ta itxasoa  
alkar goratzen dagoz  
abegi onenaz,  
zeru goiko izarren  
ta itxastar arraiñen  
edertasunagaz.*

*Goizaldian ba-doaz  
giza arrantzariak  
itxas zabalera,  
gero ta ederrago  
agertzen da urdiña  
eguzkiz batera.*

*Euzko arrantzaria  
BOGA BOGA abestuz  
doa urrutira,  
arrain bizigarriak,  
arro arro, dabiltzaz  
euren gurarira.*

## IKASKETA

*Ikasi ta ikasi  
egiten dau gizonak  
elburu onean,  
lan eder onen bidez  
bizia edertzen da  
mundu zabalean.*

*Egia ta argia  
ikasbidetik datoz  
bizia ondurik,  
ikaste aintzatsuak  
mundua ontzen dabe  
egiz ederturik.*

*Ikasketa bikaiñak  
gora gora dakarrez  
gizonen biziak,  
ikasiak sortzen dauz  
mundu eder ontako  
aurrerapidiak.*

*Ikaste altsuenak  
ondoren bikaiñenak  
dakarrez errian,  
giza jakituriak  
edertzen dauz erriak  
alkartasunian.*

*Ikasteari esker  
mendi goiak loradi  
biurtuten dira,  
eta aritz lerdenak  
sendotuten doazi  
zerura begira.*

*Gora giz adimena  
aurrerapen bidetan  
zinez indarturik,  
baratza nagusia  
eskar onez daukazu  
biotz biotzetik.*

## AINTZA

*Aintza eta gorasun  
euzkoen lur amari  
bizitz eder ontan,  
izkuntzaz bikain zara  
lorerik ederrena  
lur bikain onetan.*

*Aintza eta gorasun  
euzko lur maiteari  
beren izatean,  
gora euzko mendiak  
edertasun zentzunez  
onduak lurrean.*

*Gora bijoakizuz  
euzko bizitz ederrak  
zuzentasunean,  
gora ta gora beti  
euskaldunen bizitza  
ontasun bidean.*

*Aintza zeru goietan  
bizidun jatorrari  
zorion betean,  
aintza eta gorasun  
zerutar guztieri  
zorion betean.*

*Lorerik ederrena  
aintza da zeru goian  
zuzentasunean,  
gora ta gora beti  
zoriondun itza  
Jaunaren aurrean.*

*Zeru zoragarria  
santuz ondurik dago  
argiz orbizturik,  
giza seme zuzenak  
Aitarenean dagoz  
aintzaz ederturik.*



## SOLO ZABALA

*Solo zabal nausia  
izen bikaiña da  
euskaldun lurreean,  
goizetik gabea  
argirik ederrenaz  
urrezko omenean.*

*Garitza aintzatsuak  
omentzen dabe lurra  
egun-sentieran,  
gari buru ederrak  
bizi bizirik datoz  
eguzki sorreran.*

*Eguzki ta soloa  
biak alkartu dira  
edertasunean,  
bizitz zoragarria  
dator gari buruan  
era onenean.*

*Garitz ederrenagaz  
bizia poztuten da  
baserri maitian,  
solo ertzian dabiltz  
txori abeslariak  
kantu bikaiñian.*

*Garitza urrezkoa,  
emon da zabal zazu  
ogia lurreean,  
zure bizitik dator  
janari eztsua  
solo ederreean.*

*Euzko solo zabala  
egitan bikain zara  
mamin onenetan,  
garitza zabal orrek  
bizia dakarskuzu  
ego zabaletan.*

## MAXALDE

Zorioneko itza  
Maxalde nagusia  
euzkoen lurrean,  
itza eder dalarik  
mendia ederrago  
bikaintasunean.

Euzko Max zoragarri  
Bizkaiko lore zara  
ederrez ondurik,  
zure bikaintasuna  
edermiñetan dago  
eskarrez goiturik.

Etxebarria dozu  
oiñarri leiñargia  
bizitza guztian,  
biok alkarren lagun  
zoramenenez ondurik  
bizitz ederrian.

Ederrez bikain zara  
alderdi danetatik  
txit zoragarria,  
goratasun aldetik  
bitxia dirudizu  
zerutik jatxia.

Maxa zoragarria  
izatez bikain zara  
sormen ederrean,  
izarrak adi dozuz  
zeru goi zabaletik  
urdintasunean.

Zure izate guztiz  
bardin bagea zara  
munduaren aurrez,  
aintza eta gorasun  
zure omenak dira  
zoriontasunez.

## EDER-MIN

*Etxebarri eta Mungi  
erri jatorrak dira  
euzko parnasoan,  
euzko izkuntz bikaiñez  
egoki argituak  
zoramen osoan.*

*Ederra ta argia  
biak batera doaz  
alkartasunian,  
Etxebarri ederra  
bat egin da Mungiaz  
izkuntz bikaiñian.*

*Gizontasun bikaiña  
oroz goitik daroe  
alkarren artean,  
gizontasun argia  
berezko lorea da  
bien bitartean.*

*Euskaldun izatea  
erri biak daroe  
odolez ondurik,  
gizon agurgarriak  
sortu dira bietan  
itzaz argiturik.*

*Euskal mendi bikaiñak  
Maxa eta Sollube  
anai onak dira,  
ederraren ederrez  
alkar begira dagoz  
euzko zabaldira.*

*Etxebarri ta Mungi  
lora bikaiñak dira  
euskaldun artean,  
izkuntza zoragarritz  
benetan apainduta  
alkartasunean.*

## EGILLEA

*Egille Almentsua  
bardiñik bagea da  
zeru ta lurrean,  
jakin ta maitasunez  
ez dauka ez bardiñik  
izadi aurrean.*

*Jakituriz ta maitez  
bardiñik bagea da  
zeru ta lurretan,  
izate guztiaren  
Jauna eta Jabea  
sorkari danetan.*

*Egille Almentsua  
bardiñik bagea da  
zeru ta lurrean,  
Jakituriaren buru  
Maitasunaren biotz  
ontasun bidetan.*

*Zelai eta mendiak  
edermiñetan dagoz  
euzkoen artian,  
arizti bikaiñenak  
gora goraka dagoz  
euzko lur maitian.*

*Lur eta itxaso  
almen ederrenetan  
aurkituten dira,  
dizdizera ederrez  
zoramenetan dagoz  
alkarri begira.*

*Zerua eta lurra  
Jaungoikoak egiñak  
argi bizietan,  
biak goratzen dabe  
Jainko jakituria  
zorion bidetan.*

## LUR EDERRA

Lurra eder giroan  
bitxi txit bikaiña da  
orlegi artean,  
bere baitan daroa  
sormenaren almena  
biotz onenean.

Izadi aintzagarri  
egitan, eder zara  
udalen goizian,  
bizia lorez dago  
eder bitxiz ondurik  
zelai orlegian.

Ederra ta argia  
biak bat egin dira  
goiz, udabarrian,  
lora zuri gorriak  
gora goraka dagoz  
baratz zabalian.

Ederrez bikaindu da  
lurralde ingurua  
zoramen bizian,  
eguzkia ta lurra  
biak bat egin dira  
edertasunian.

Ibai eder urdiña  
dizdiz bizitan doa  
eguzki printzetan,  
ederra ta zoria  
alkartasunez dabiltz  
lurren erraiean.

Ederraren bizia  
zoramenetan dago  
baratza erdian,  
zugatz eta landara  
ernemiñetan dagoz  
zentzun onenian.



## ORTZIA

*Urdiñaren goi ederra  
zoramenetan dago  
ortzi omenduan,  
urdin aratz nausia  
jaun da jabe biur da  
gorengo zeruan.*

*Ederra oroz goitik  
argiz beterik dago  
izarren artian,  
lur dana arriturik  
zerura adi dago  
poztasun aundian.*

*Ederraren ederra  
gora goraka dator  
goiz, egunsentian,  
urrezko izardia  
dizdizera beiñetan  
dabil goi aldian.*

*Urdiña ta urrea  
biak alkartu dira  
zoramen onean,  
argitasun bikaiña  
bien artetik dator  
aintzatsu goizean.*

*Izar ditziratsuak  
urre-bolatan dabiltz  
dizdiz ederretan,  
lurra zerura adi  
ames gozoenetan  
aintzaren bidetan.*

*Udako goi argia  
amesgarri dalarik  
zeru urdiñean,  
zerua deika dago  
ederraren bitartez  
giza biotzean.*



## EGAZKA

Egaz doa gizona  
mundu zabal zear  
Ameriketara,  
lurra eder dalarik  
goia bikainki dao  
edertasunera.

Goi egazkinzuria  
bizi bizirik doa  
egaz zorietan,  
izarrak adi daukaz  
dizdizera ederrez  
zorion bidean.

Ta zu, egazkin maite,  
pozkiroz zoaz egaz  
urdiñarenpian,  
egoak zabal zabal  
daroazuz, bikainki,  
zeru urdinpian.

Giza seme euzkotarra  
adorez eta pozez  
doa egazkin,  
zeru goitik begira  
euskaldunen lurrera  
edertasunian.

Zeru eta erria  
biak alkartu dira  
ederrez ondurik,  
Euskalerra guztia  
maita-miñetan dago  
itzez argiturik.

Goi egazkin bikaiña,  
zure dardara biziz  
poztu lurraldia,  
ederraren pozagaz  
goizez orbiztu dedin  
gizonen bizia.



## EGALDAKA

*Txori abeslariak  
pozaren pozez dabiltz  
urdiñaren aurrez,  
urdin zoragarria  
deika dago zerutik  
goitar zoramenez.*

*Gora ta ederrago  
aurkitzen da bizia  
izarren aurrian,  
urree ta bizia  
dizdizera ederrez  
doazi aidian.*

*Egaz doaz txoriak  
mendiak agurturik  
izarren pozagaz,  
izardi aintzatsua  
zoramenetan dago  
zerutar argiaz.*

*Gora ta bikaiñago  
aurkitzen da urdiña  
ederrez ondurik,  
txori egazkariak  
zeru goira doazi  
pozez arroturik.*

*Izardi aintzagarri  
edermiñetan dago  
bizitz gailenetan,  
urre bola nausiak  
jakituriaz dagoz  
zeru ederretan.*

*Gaberik ederrena  
urre gorritz jantzi da  
zorakortasunez,  
gizadi jakintsua  
zerura adi dago  
ederren omenez.*

## EGALDI

Egoak zabaldurik  
txori egalaria  
urriñera doa,  
gogorik onenagaz  
zabaltzen dauz egoak  
lurretik zerura.

Lenengo urterea  
bilinbolaka asten dau  
era bikaiñean,  
izar guztiak adi  
txoriari begira  
zeru urdiñean.

Gora ta gora doa  
txori zuri gorria  
bikaintasunian,  
egoak ongi doaz  
poz berak eraginda  
almen onenian.

Agur itxas urdiña,  
zerura adi zagoz  
maitasun garretan,  
txori kutun maitea  
gero ta gorago  
amesgarrietan.

Mendi eder guztiak  
gora begira dagoz  
egazlariari,  
txoriak goitik agur  
abesti liraiñagaz  
erri maiteari.

Izarren aurrez dago  
txori abeslaria  
egazka aidean,  
izardi aintzatsua  
txoria agurtuten  
goi ederrenean.

## EDURTZA

*Jasokun aundia da  
edurtza ain zuria  
izadi aurrian,  
zeruetatik dator  
dardara pozgarritan  
euria zurian.*

*Gogorik onenagaz  
laiñu baltz ta illunak  
kantuan dabiltzaz,  
ta izarrak gorago  
erti soiñu entzuten  
belarri biziaz.*

*Laiñu baltzen soiñuak  
mendirik mendi datoz  
zarat gogorretan,  
bakea urratu da  
izar gorri azpian  
indar gogorretan.*

*Mendiak eta trokak  
ixil ixilik dagoz  
alkarri begira,  
larra-bizker guztiak  
illun aurkitzen dira  
trumoiak minduta.*

*Mendi tontor guztiak  
zurituaz doazi  
ixiltasunean,  
ta edur almentsua  
gero ta sendoago  
beraren lanean.*

*Edurra aberats, dator  
zeru goitik lurrera  
beren almenetan,  
ez dauka alperkeririk  
laiño baltz ugariak  
beraren lanetan.*



## EGAL

*Mendi egal guztiak  
zuriz bikaindu dira  
alkarren aurrean,  
zu ederra izanik  
ni naz bikaiñago  
alkarren artean.*

*Lur oro apaindu da  
jantzi zuri zuriaz  
edertasunian,  
zeru zuri dirudi  
atzoko mendarteak  
edurrarenpian.*

*Maxa zoragarria  
ixil ixilik dago  
guztiz estaldurik,  
ederra ta argia  
ugarituten daukaz  
edurrak ondurik.*

*Maxa zoragarria  
guztiz apaintzen dago  
len eder zalarik,  
mendi guren apaiña  
edurpe zuripean  
bizia alaiturik.*

*Mendiak zuri zuri  
erreiñu bat ein dira  
alkartasunean,  
batasun anaikorra  
agertuten da lurrez  
zuritasunean.*

*Zuria ta edurra  
lurrez jabetu dira  
mendi ta zelaian,  
lengo illuntasunak  
soiñeko zuriz dagoz  
alkartasunian.*

## INDARREZ

*Mendi magal bikaiña  
usain gozozko lorez  
bikain aurkitzen da,  
zuririk dau bizia  
mendi egal guztia  
lozez apainduta.*

*Usain gozoa dago  
Maxaren magalean  
lozez apaindurik,  
gora ta bikaiñago  
aurkitzen da guztia  
ederrez ondurik.*

*Zerua ta mendia  
biak alkartu dira  
ederraren bidez,  
biak zorionian  
errira adi dagoz  
zoriontasunez.*

*Max mendi aintzatsua  
zeruak ondu zaitu  
bikaintasunean,  
ta agurka zagoz  
zeru goi urdiñari  
esker onenean.*

*Txori abeslariak  
goizian goiztik dabiltz  
eres bikaiñetan,  
euzko baserritarrak  
gogo onez doazi  
entzute ederretan.*

*Izadi ta gizadi  
bikain, alkartu dira  
goizian goizetik,  
bidegarri taldeai  
abesti bikaiñenak  
gozaro entzunik.*

## ORLEGI

Zelai eder bikaiña  
ba zan etxe ondoan  
orlegiz jantzirik,  
bizitz sendoa eukan  
goi ertzetik barnera  
izatez ondurik.

Luzeraz ta zabalez  
eguzkiz lagunduta  
guztiz bikaiña zan,  
landibar zorakorra  
ametsetan egoan  
beraren bizitzan.

Etxe zuri bikaiña  
beren alboan eukan  
ametsez beterik,  
ederra ederragaz  
alkarturik egozan  
orlegiz ondurik.

Zelaiaren ertzean  
keriz gorri zugatzak  
dirdiraz egozan,  
eguzki ta zugatza  
biak alkartu ziran  
eder-min aratzen.

Txori abeslariak  
pozez usainka datoz  
zugatz gaiñetara,  
adarrrik adar dabiltz  
keriz gogo ondoren  
gogoz gozartzera.

Estu ta larri dabiltz  
gozoenak artuten  
zugatzaren puntan,  
zerua adi dago  
txori amesetara  
garau ederretan.

## ARDURA

*Ardura biziz dabiltz  
giza seme argiak  
astelen goizian,  
lan aundiak egin nai  
giza gaisoen alde  
bizitza larrian.*

*Beartsuen taldea  
larri, ikusten dabe  
zoritar menpean,  
biotzak dei dagitse  
euzko lagunaren  
bear izanean.*

*Ardura biziz dabiltz  
ogi janari billa  
anai bitxi alde,  
anai bizen larria  
ezin ikusi dabe  
bizen samiñez.*

*Egitan samiña da  
anaia ikustea  
ezbear larrian,  
anaiaren samiña  
larri, aurkitzen dabe  
euren biotzian.*

*Gauza egokia da  
anaiei laguntzea  
samin aundietan,  
biotz minuak poztu,  
ori da anaitasuna  
bear izanetan.*

*Gizonarentzako da  
lurraren onginaia  
biziaz batera,  
zorioneko dira  
errukitzen direnak  
bear izanera.*

## URRUNDIK

*Euzko mendi gaiñenak  
egiz bikaiñak dira  
gure lur aldean,  
alkar begira dagoz  
goratasun biziaz  
agerpen onean.*

*Bizia ta ederra  
bikain agertzen dira  
alkarren aurrean,  
izadi aintzatsua  
goramenetan dago  
euzkoen artean.*

*Mendi, ibai ta zelai  
danak alkartu dira  
maitasun giroan,  
lurtar danak bardinduz,  
zoramenen darie  
txit oso osoan.*

*Banaka bikain dira  
aritz orlei guztiak  
mendi magalean,  
ederren zein ete dan  
ezin erabagirik  
alkarren artean.*

*Arizti ta pagadi  
gora goraka dagoz  
ederrez bizturik,  
lizardi aintzatsua  
lurraren kutuna da  
ederrak ondurik.*

*Txori abeslariak  
adarrak adar dabiltz  
egaz atsegiñez,  
abesti gozoenak  
goizaldian abestuz  
mendien omenez.*



## MENDIRIK MENDI

*Mendi edertasuna  
berez da maitegarri  
lillura bikaiñez,  
euskal mendi jatorrak  
itza opaka dagoz  
edertasun bidez.*

*Gaillurrak eta trokak  
danak alkartu dira  
osasun bizian,  
zugatz era guztiak  
edermiñetan dagoz  
osasun garbiaz.*

*Gizonak adi dagoz  
mendi guren eztira  
goizian goizetik,  
ederra zabaldu da  
argiak lagunduta  
biotz barrenetik.*

*Mendirik mendi doaz  
euzko seme jatorrak  
ederra gozartzen,  
mendi guren ederrak  
maitasun giroz dagoz  
ederra eskeintzen.*

*Izadi ta gizadi  
alkar begira dagoz  
mendi magalean,  
egitan bikaiña da  
aizkidetasun ori  
izadi aurrean.*

*Erleak aidean doaz  
zugatzen lorelara  
ezti usaiñean,  
eguzki ta eztia  
mendia ontzen doaz  
bikaintasunean.*

## IZKUNTZA

*Izkuntza jakintsua  
buruz eta biotzez  
ondo ornitua,  
erri jator bat dauka  
bere sorle bikain lez  
egi egizkua.*

*Euskera itz bikaiña  
emon dautso erriak  
nortasun bikaiñez,  
goitik bera argia  
guztiz, ondo, josia  
beraren izatez.*

*Euskaldun semea da  
gurasoen antzera  
ederrez ondua,  
jakituri argia  
berarengan daroa  
itzez bikaindua.*

*Izkuntz zoragarria  
bikaiña da itzez  
almen ederrean,  
maisu jaun jakintsuak  
izan ditu egille  
argitasunean.*

*Mendirik mendi ibilliz  
arritzen ditu erriak  
izkuntz jakituriz,  
berezko izaeraz  
eder bera dario  
almen zoragarritz.*

*Euskal izkuntz argia  
etxerik etxe doa  
argitzen bideak,  
sendia ta izkuntza  
ederrez ondu dira  
elkar maitaleak.*

## EUSKALDUNA

*Euzko giza semea  
agurgarria zara  
mundu ederrean,  
buru argia dozu  
egia maitaturik  
zurtasun bidean.*

*Argi ta maitasuna  
artu dozuz gidari  
euskaldun lurean,  
doai zoragarriak  
erria zuzentzeko  
aurrerapidean.*

*Euzko seme zintzoa  
egizale da berez  
jatortasunian,  
Euskalerra maitea  
txit apaindurik nai dau  
edertasunian.*

*Egi ta maitasuna  
nai dauz erriarentzat  
osasun bidean,  
egitik dator itza  
on egiten lurrari  
bear izanean.*

*Maitasun biotztarrak  
alkartasuna dakar  
lana egikeran,  
gizon kidetasunak  
erria goratzen dau  
giza bizikeran.*

*Egite onen bidez  
gora goraka doa  
giz alkartasuna,  
erria edertzen da  
anaitasun bikaiñez  
ontasun erara.*

## IZADI

Itz omengarria da  
izatearen aurrez  
izadi maitia,  
milloiak ta milloiak  
gizonen jarlekua  
dogu izadia.

Gizonen bizitzaren  
oiñarri almentsua  
dago izadian,  
nora nai begiratuz  
bizia dago bertan  
ospakisunian.

Ederraren ederrez  
gizona arrituta  
aurkitzen da bertan,  
ederren zer ete dan  
konturatu ezinik  
lurren erraietan.

Izadi almentsua  
bizitzaz ta ederrez  
dago orniturik,  
ederren zer ete dan  
giz adimen argiak  
ezin asmaturik.

Bikaintasun inguruz  
batetik ta bestera  
apaindurik dago,  
jakituria dauka  
inguru guztietan  
oparo oparo.

Eskermiñetan dago  
itxas urdin zabala  
lurraren aurrian,  
arraiñak gora gora  
poz saltari dabiltzaz  
ingurumarian.

## DEUNA

*Egiz izen ederra  
euskaldun baratz ontan  
zuzenez ondurik,  
gizon zuzentasuna  
deuntasunak ontzen dau  
egiz ederturik.*

*Lurreko onbideak  
egitan, eder dira  
gizonen bizian,  
zuzentasun jatorrak  
goratzen dau notiña  
egite onian.*

*Jokabide zuzenak  
munduaren bizia  
ontzen dabe lurrez,  
egizko maitasunak  
osotzen dau batzarra  
zoriontasunez.*

*Bide bikain ortatik  
bizia onduten da  
alkartasunean,  
zuzentasun biziak  
aurreramena dakar  
gizontasunean.*

*Jokabide onetik  
bizia onduten da  
zeruaren aurrez,  
gizona gorantz doa  
lagunak lagunari  
on dana egiñez.*

*Maitasun bidetatik  
on egitea dator  
batak besteari,  
ontasunak dakartso  
deuna izen jatorra  
gizon zuzenari.*

## ARIN ARINGA

*Arin aringa doa  
bide zabaletatik  
gizonen gogoa,  
norbait mendietarantz  
aize osasuntsuaz  
biziz indartzera.*

*Maxako zugadiak  
egiz indartsu dagoz  
osasun bidean,  
bizia gura dabe  
euskaldun bikaiñentzat  
edertasunean.*

*Mendia deika dago  
auzotar guztieri  
bikaintasunagaz,  
euzko seme jatorrak  
Maxa onartzen dabe  
gogo guztiagaz.*

*Max eder gain guztia  
zoramenetan dago  
beraren ederrez,  
euskaldun oin azkarrak  
arin arin doazi  
bikaiñaren maitez.*

*Begiak azkar dabiltz  
Euskalerrria adi  
ontasun guztiaz,  
erri, mendi ta zelai  
danak besarkaturik  
begi zoliagaz.*

*Giz urrezko biotzak  
leiatsu, adi dagoz  
alde danetara,  
agur amultsuena  
guztieri emonez  
euzkotar erara.*

## BIOTZA

*Giza seme bikaiña  
buru ta biotzez  
dago apaindurik,  
bizitz eder onetan  
gizonaren bizia  
bikainki sorturik.*

*Buru goiko almena  
bear bearreko da  
gizonen bizian,  
argi bizia bear  
lurtar arazoetan  
gizonak lurrian.*

*Argi barik ez dator  
onurarik lur ontan  
gizonen omenez,  
argiaz sortzen dira  
garitza indartsuak  
bizirako pozez.*

*Buruaren laguna  
urrezko biotza da  
gizatasunean,  
ontasun lagun barik  
gizona ezin bizi  
lurtarren artean.*

*Mendiak maite ditu  
biotz agurgarriak  
zoriontasunez,  
zugadi aintzatsua  
gora goraka dago  
eskerrak emonez.*

*Biotz ta izadia  
maita miñetan dagoz  
ontasun guztiaz,  
biotzak maite ditu  
baratz edertasunak  
gurari biziak.*

## GOGOZ

Lenen begirada bat  
izadi bikaiñera  
almen onenagaz,  
gizon ta izadia  
zoramenetan dagoz  
edertasunagaz.

Euskalerra guztiak  
baratza bat dirudi  
edertasunian,  
mendi gailen guztiak  
gora goraka dagoz  
eguzki aurrian.

Arizti ta pagadi  
ederrez deika dagoz  
mendi orleietan,  
gogo onez bizi dira  
lur bikain zabalian  
egizko larretan.

Tontortik bera dator  
aldapa orlegiko  
biziaren garra,  
zoramena dario  
mendi magal guztiak  
goitik eta bera.

Aldatz barnean dago  
iturri txanbeliña  
ur gozonenetan,  
gizonen guraria  
asetzen dakiana  
bear izanetan.

Gogoz doaz begiak  
izadi zabalera  
edertasunean,  
tontor, mendi ta zelai  
guztiak alkaturik  
bikaintasunean.





## ALMEN

*Itxaso, lur ta gizon  
iru almendun dira  
bizitza onetan,  
irurak dira eder  
almenez txit ondurik  
bizitz ederretan.*

*Itxas urdin zabalak  
bere almenak ditu  
urdiñen barnean,  
millinoiak arraiñak  
janarituten ditu  
beren ardurean.*

*Eta arraiñak pozik  
itxaso zabalean  
bizitzaz ondurik,  
lurra alikatzen dabe  
gizonak janarituz  
bizia bizturik.*

*Lur almenak on dira  
mendi ta zelaietan  
indartsu bizirik,  
zugadi almentsuak  
gora goraka dagoz  
indarrez beterik.*

*Arizti orlegiak  
ola opaka dagoz  
almen ederretan,  
etxe zuri zuriak  
aritz olez eginda  
almen bizietan.*

*Almen nagusiena  
gizonen baitan dago  
zuzentza bidean,  
ikastetxe nausiak  
gora gora daroaz  
aurrerapidean.*

## ETXEBARRIA

*Erri bikain bat ba da  
Bizkai on ederrean  
ludira begira,  
ateak zabal daukaz  
onerako gerturik  
zorion argira.*

*Gizon jatorrak ditu  
mundu zear ibiliak  
lan arazoetan,  
Jaungoikoaren itza  
errieri opalduz  
egizko bidetan.*

*Aita Balentin Jaunak  
bizitzarik geiena  
Kuban egin eban,  
Jaungoikozko argia  
Kubatarrei eskeintzen  
gogo onenean.*

*Misiolari bikain  
izan zan Kubarrentzat  
argiaz ondurik,  
maitasun on guztia  
gogoz eskeini eutsen  
biotz biotzetik.*

*Jakituri ta lanez  
ondu eban bizia  
Kubarren artean,  
Cienfuegoz ta Kamaguei  
gogorik onenagaz  
igaroz lanean.*

*Ta azkenez Abanan  
Gongotzai ardurez  
ondurik bizia,  
gogorik onenagaz  
eskein eutson Kubari  
bera zan guztia.*

## MENDIA EDERREZ

*Bizkaiko lur maitea  
edermiñetan dago  
orlegiz jantzirik,  
mendi maitegarriak  
nunnai agiri ditu  
bikaiñez ondurik.*

*Zelai orlei bikaiñak  
nunnai agertzen dira  
erriak edertzen,  
ederra ta bakea  
bizi bizirik dagoz  
etxeak apaintzen.*

*Lur zoragarri ontan  
baserri aintzatsuak  
dagoz mendietan,  
danak osotzen dabe  
ederraren bizia  
mendi magaletan.*

*Mendi eder bat ba da  
egiz zoragarria  
guztien artean,  
euskaldunak maite dau  
bere jaz aintzatsua  
edertasunean.*

*Urdiñera adi dago  
euzko mendi bikaiña  
eguzki argitan,  
zoramenetan datza  
beren bizitz guztia  
edertasunetan.*

*OI Max agurgarria  
zuri begira dagoz  
mendi-goi zaliak,  
zure bikaintasuna  
gogorik onenagaz  
maite dau erriak.*



## EDERRA GOI ARGIZ

Zeru goiko argia  
dizdizera ederrez  
dator izadira,  
zeru eta lurtarrak  
argiaren indarrez  
besarkatu dira.

Izadia, zain egon  
bizia indartzeko  
argiaren bidez,  
ta urrezko izarrak  
gerturik laguntzeko  
zerutar indarrez.

Euzko lur aintzatsua  
esker-miñetan dago  
argitasunari,  
ta zeru-goi urdiña  
gogo bizitan adi  
edertasunari.

Euzko giza semea  
abegi onez dago  
zerura begira,  
lurra eder dalarik  
zerua bardin gabe  
ederragoa da.

Zerutik dator deia  
maitasun onenagaz  
euzkotar errira,  
betiko poz argia  
eskeintzen dator Jauna  
euzko biotzera.

Euskaldun leiñargia  
zerura adi dago  
Jaunaren aurrian,  
oroz goitik maite dau  
zerutarren argia  
zuzentasunian.

## ABESLARIAK

*Batzar aunditan dabiltz  
giza seme bikaiñak  
errian kantari,  
aintza eta gorasun  
kantuz agur egiñaz  
Euskalerrinari.*

*Euzkotarren semeak  
asko dira doi biziz  
mendi bikaiñean,  
zeru goitik jatorke  
duintasun bikaiña  
abots ederrean.*

*Erri ta kantariak  
bat egin dira goizez  
mendi tontorrian,  
abeslari apaiñak  
gora gora daroaz  
gizonak aidian.*

*Zeru urdin garbiak  
paradisu dirudi  
edertasunian,  
ertilarientzako  
egiz amesgarria  
zorion bidian.*

*Euzko plaza zuria  
aintzaz beterik dago  
abesti bikaiñez,  
erria eta lurra  
biak bat egin dira  
kantu zoramenez.*

*Arago ta pozago  
agertzen da zelaia  
argi dizdizetan,  
urrezko eguzkia  
dana onduten dabil  
printza orietan.*

## GOGARTEA

Giza seme bikaiña  
adimen ta biotzez  
orniturik dago,  
izate almentsua  
daroa bere baitan  
oparo oparo.

Lurraren zuzendari  
jarri eban Jaunak  
bizitz eder ontan,  
itxas zoragarriak  
beraren jakituriz  
zuzenduz uretan.

Gizonaren almenak  
urrebitxizko dira  
esku ilkorretan,  
mendi gailen guztiak  
giz almenpean dagoz  
ardura onetan.

Mendi egal argiak  
zoragarriri dagoz  
gizonak ondurik,  
jakituriz ta lanez  
gizonak darabillez  
lurrak apaindurik.

Euskalerra maitea  
edermiñetan dago  
zabalez ta luzez,  
zeru-goitik jatorko  
argi zoragarria  
eguzkizko urrez.

Euzko lur aintzatsua  
eder-girotan dago  
jantzi orlegiaz,  
baratz xarmagarriak  
loraz beterik dagoz  
almen guztiagaz.

## GOSE

Giza gorputz gaisoa  
gose-miñetan dago  
estura bizitan,  
indarrak larriturik  
neke-samiñez dago  
ildura larritan.

Gorputz giza gaisoa  
indartsu deika dago  
gosez, diadarrez,  
janari indartsuak  
nai ditu mai aldian  
bizitza omenez.

Zelaira adi dago  
abere gazteari  
ametsez beterik,  
gorputz gizagaisoa  
okela billa dabil  
indartu gurarik.

Gizonak beregan dau  
beste alderdi on bat  
urrez goitikoa,  
jakituri sustraia  
berarengan daroa  
zerutar goikoa.

Anima almentsua  
zerutar argiz dago  
onbideraturik,  
argia ta ezitia  
berarengan daroaz  
jakintzag ondurik.

Giza almen ederra  
biotz barruan dago  
urrez orbizturik,  
maitasun izen bitxiz  
mundua edertzen dau  
bakez orniturik.

## ITZLARIA

*Itzlari omendua  
gora goraka doa  
bizien lurrean,  
burua ta biotza  
argiz ondurik daukaz  
bizitz ederrean.*

*Euzko gizon argiak  
urretxindor dirudi  
euskal parnasoan,  
jakituri aintzatsuz  
erria goratzen dau  
itz eder osoan.*

*Izkuntz argi bikaiña  
egiz da zoragarri  
euskaldun baratzan,  
euskera jakintsua  
bizi bizirik dabil  
euzko enparantzan.*

*Euskaldun itzlariak  
izkuntz jori bategaz  
ondu dau bizia,  
jakituri ederra  
berarengan daroa  
goi aintzaz betia.*

*Plazarik plaza dabil  
asmorik onenagaz  
egizko bidetan,  
Euskalerrri maitea  
egitan agertzen dau  
edertasunetan.*

*Euzko erri eder bat  
izkuntza bikaiñagaz  
ondu da lurrean,  
itzlari ta erria  
biak batera doaz  
bizitz bikaiñean.*



## ERTILARIA

*Egitan itz ederra  
almen onetan dago  
euzko elertian,  
gizonaren almenak  
goratzen dau izkuntza  
eder omenian.*

*Euzko batzar almenak  
aurrerantza daroaz  
izkuntza bideak,  
ederraren ederrez  
orbiztuten doazi  
euzkotar semeak.*

*Euzko almen jatorrak  
gora goraka doaz  
izkuntz ederrean,  
euskerak bear ditu  
ertilari bikaiñak  
itzaren bidean.*

*Egiz da zoragarri  
euskal-itz ertilari  
euzko parnasoan,  
gero ta ederrago  
izan bear dau itzak  
beraren arloan.*

*Izkuntz xarmangarria  
egaz dabil plazetan  
jakintzaz betia,  
itzlau eta bertsoan  
edermena dario  
urrezko jantzia.*

*Izkuntz ertilariak  
seme ertilariak  
nai ditu bizian,  
euzko izkuntz bikaiña  
loretan lorea da  
baratza orleian.*

## MENDI LIRAIÑA

*Euskaldun izadia  
gora goraka dago  
ederrez ondurik,  
zelai eta mendiak  
erreka liraiñekin  
gutziz ederturik.*

*Iturri ameskoia  
dizdiz dago mendian  
urretxiñoletan,  
uraren bizi poza  
eskeinka gizonari  
ordu bearretan.*

*Izadi ta gizadi  
biak alkartu dira  
iturri aurrian,  
uraren ederragaz  
bizia ondu nairik  
poztasun onian.*

*Erle bikain bikaiñak  
iturrira doazi  
egazka bizian,  
ur garbiaz poztuta  
egaz doa barriro  
aide pozgarrian.*

*Zelairik zelai dabiltz  
janariaren billa  
lora zurietan,  
erlearen amesa  
aldi onez ondurik  
usain gozoetan.*

*Mendi zoragarriak  
askorentzako dira  
bizitz edergarri,  
aizea ta argia  
egi egitan dira  
bizi omengarri.*

## ARTZAINAK

*Mendirik mendi dabiltz  
gizon eder zaliak  
bear bikaiñetan,  
mendiguren bikaiña  
aintzaz beterik dago  
edertasunetan.*

*Mendi zoragarriak  
deika dagoz gizonen  
goizian goizetik,  
ederra ta bizia  
janariaz ondurik  
errai barrenetik.*

*Mendi goi aintzatsua  
eguzkiz urretu da  
goizalde liraiñez,  
zerua urdin urdin  
gizadiari deika  
ederraren bidez.*

*Mendiguren orleian  
aldatz gora doazi  
ardi gosetiak,  
eguzkiz ta orlegiz  
inguraturik dagoz  
goi egal guztiak.*

*Ederra dago goian  
urrezko argiagaz  
onduz lur guztia,  
ta artalde zuria  
gogorik onenagaz  
gozartzen bizia.*

*Artzain gizon jatorrak  
ardura onez dabiltz  
euren arasoan,  
ardi zuriak zaindu  
bizia gozarturik  
ontasun osoan.*

*Etxebarria erri maitea*



*Etxebarria. Erri maitea.*



## ORLEIA

*Margo arrigarria  
bikainki, ondu dozuz  
lurraren egalak,  
mendi eta zelaiak  
zure baitan daukazuz  
ederrez onduak.*

*Zugadi aintzatsuak  
urremiñetan dagoz  
eguzkiz ondurik,  
argia ta orleia  
biak bat egin dira  
zugatzak pozturik.*

*Ametsezko orleiak  
artu dau zabaldua  
bere magalpean,  
dizdizera ederrez  
maiteki zainduten dau  
argitasunpean.*

*Bidegarra ta zozo  
zoraturik dabilzaz  
aritz adarretan,  
egaz doaz txoriak  
ederrak eraginda  
bultzada aidetan.*

*Abesti amultsuak  
datoz arizti goitik  
zelai orlegira,  
eder ta abestia  
zelai zear doazi  
euzko belarrira.*

*Euskal baratza orleia  
ernemiñetan dago  
ederrez jantzirik.  
Lora zuri-gorriak  
amultsu artzen dabe  
ederrez goiturik.*

## GOSE

Zugatzak gose dira  
euren bake ederrez  
ixiltasunean,  
bakez dagoz ixilik  
mendi orlegietan  
duintasunean.

Arizti aintzatsua  
ernemiñetan dago  
urduri urduri,  
egunik egunera  
ederrago izanik  
mendan nagusi.

Euzko baserritarrak  
ardura biziz dabiltz  
euren egiñetan,  
goizian goiz doazi  
euskal mendiak zaintzen  
ardura onetan.

Mendi bizkar bikaiñak  
egunik egunera  
edertuten doaz,  
esker-miñetan dagoz  
zelai ta zugadiak  
almenik onenaz.

Arizti aintzatsuak  
gora gora dagoz  
bizitz onenian,  
bikain dago orleia  
eguzkiak ondurik  
izadi aurrian.

Ederraren goseaz  
geiago ondu nairik  
ongi dago lurra,  
Maxa zoragarria  
bikaiñik bear ba da  
egiz da ederra.

## IKASLEA

*Ekintza bikaiña da  
ikastea lurrean  
jakintzaz ondurik,  
ikasiak ontzen dau  
gizonaren bizia  
buru ederturik.*

*Olerkari bitxia  
izatera eldu zan  
ikasizko bidez,  
ikasiak leuntzen dau  
adimen zorunduna  
goi argitasunez.*

*Ikaste aintzatsuak  
itza dakar zerutik  
jakintzaz ondurik,  
buruak zurtzen ditu  
argitasun bikaiñez  
bizia azkarturik.*

*Ikaste aintzatsuak  
gizona goratzen dau  
parnaso bidean,  
ikasi ta argituz  
bizia duintzen da  
edertasunean.*

*Jakituri ekintzak  
erriak goratu dauz  
aurrerapidean,  
jakiturizko ekintzak  
bizia zurtuten dau  
gizonen aurrean.*

*Giza argitasuna  
lurrean zabalduarik  
sari aundia da,  
jakituri bidetik  
bizitz ohea dator  
gizonen artera.*

## ZERUTARRA

Gizonen elburua  
lurrez goitikan dago  
edertasunean,  
izar guztien goitik  
argiagaz ondurik  
bikaitasunean.

Lurtarren on guztia  
Paradisuan dago  
Jaunak sariturik,  
gizon, andra ta gazte  
guztiak aingeru lez  
pozez urbildurik.

Lurtarren gizadia  
gorantza adi dago  
itxaropen biziz,  
argia eta poza  
beti, gozartu nairik  
zerutar goi argiz.

Zerutar goi guztia  
argiz beterik egon  
zuzentasun bakez,  
aingeru ta gizon  
bikaintasun osoan  
zoriontasunez.

Giza seme guztiak  
aingeruen antzera  
aurkituten ziran,  
bake ta maitasuna  
abesti gozoetan  
ixuriz aidian.

Zerutar goi guztia  
maitasunez ondurik  
zoriontasunez,  
bakea eta poza  
zeru eder guztian  
bizitza ederrez.



## EDER-MIÑETAN

*Egun-senti bikaiña  
argiz ondurik dator  
soiñeko urdiñez,  
zeru goi biribilla  
goiz argituten doa  
zorakortasunez.*

*Gau eder aintzatsua  
edermiñetan dago  
izarren dizdiraz,  
bake ta maitasuna  
egozan gau guztian  
ederrez onduaz.*

*Zoramena erion  
izardi urrezkoak  
zeru magalpean,  
aintza eta gorasun  
zerutar izardiak  
jakituripean.*

*Goitar eder guztia  
jakituriz ondurik  
egoan zeruan,  
egiz paradisua  
ontasunez beterik  
almen aunditsuan.*

*Lur txit maitegarria  
argiak lagunduta  
edertuten doa,  
zelai ta kabeliñak  
bikainduten doazi  
zerura begira.*

*Zerua eta lurra  
edermiñetan dagoz  
onaren izenez,  
lurra eder dalarik  
zerua bikaiñago  
zoriontasunez.*

## ZINTZOA

Gizon agurgarria  
zintzotasunez dabil  
lanaren bidean,  
egunik egunera  
onartzen dau bizia  
onaren aurrean.

Gizonaren bizia  
ezin daiteke egon  
alperkerietan,  
adimen ta biotza  
urrezko bitxi dira  
lanaren bidetan.

Jakituri bikaiña  
berez doa goraka  
argitasunean,  
burua ta argia  
aurrerantza doazi  
gizontasunean.

Giza seme zintzoa  
zuzentasunez dabil  
lan ta otoietan,  
lan barik ezin bizi  
euzko seme jatorra  
ustelkerietan.

Euzko seme gailenak  
lanez eta otoiaz  
daroa bizia,  
ederrez onduten dau  
bearra egiñagaz  
izate guztia.

Gizontasun bikaiña  
ederretan eder da  
gizadi maitian,  
batzar zoragarria  
zetzunez onduten da  
edertasunian.

## GAISOA

Gizona osasunge  
larri dago lurrean  
biotza mindurik,  
gizon gizagaisoa  
neke miñetan dago  
ederra galdurik.

Osasun zorunduna  
bitxi bikaiñena da  
gizon izatean,  
bizitz osasunduna  
lorarik ederrena  
gorputz almenean.

Gizona osasunez  
gora gorada doa  
lanagaz ondurik,  
osasundun bizia  
bitxi eder bat da  
ongiz ederturik.

Biziak apaintzen dau  
gizonaren gorputza  
almen ederrean,  
osasuna, egitan,  
lora almentsua da  
gizon izatean.

Gorputza osasunez  
ta arima goi eskarrez  
alkartuten dira,  
lorerik ederrena  
giza baratzen sortuz  
gizon irudira.

Osasundun bizia  
eskatzen dau gizonak  
goitar almenean,  
egite aintzatsuak  
egin al izateko  
zorion bidean.

## BETIKO BIZITZA

*Bizitza aintzatsua  
urrez aurrean dago  
zeru goi altsuan,  
poza ta maitasuna  
bene-benetan dagoz  
zeru amultsuan.*

*Gure Aita Jainkoa  
maitasun utsa danez  
beraren izatez,  
zorion nagusia  
dauka zeru goietan  
atseden bikaiñez.*

*Lenen lenengo lurrez  
anaitasuna nai dau  
gizonen artean,  
beren seme-alabak  
maitasunez nai ditu  
ikusi lurrean.*

*Jainko Guztiz Altsuak  
gauza eder bi daukaz  
betiko bizian,  
betiko zoriona  
ta aintzazko gizadia  
edertasunian.*

*Izadi aintzatsua  
emon dautso lenengoz  
maitasun onenaz,  
osasun ta bizia  
zerua lortuteko  
sinismen argiaz.*

*Giza seme zintzoei  
betiko zoriona  
damotse zeruan,  
bake ta maitasunez  
gozartzeko bizia  
Aitaren onduan.*

## ZINTZOA

*Euzko gizon zintzoa  
egitan bikaiña da  
gizadi maitian,  
jakituri bikaiña  
daroa bere baitan  
izki ederrian.*

*Izkuntza jatorrena  
daroa bere baitan  
edertasunian,  
egiz ondurik dagoz  
gizon ta euzko itza  
alkartasunian.*

*Jakintzazko izkuntza  
bikainki agertu zan  
euzko larradian,  
buru argi zintzoak  
urrezko biotzagaz  
ondurik bizian.*

*Eder-min aintzatsua  
daroa bere baitan  
euskera argiaz,  
euskaldun ta euskera  
anai bikaiñak daukaz  
euskaldun erriak.*

*Erri eta uriak  
euskaldun itz jatorrez  
dagoz alkartuta,  
jakiturizko itza  
daroa euskaldunak  
egiak onduta.*

*Zelai eta mendiak  
edermiñetan dagoz  
euzkoen artian,  
mendirik mendi doa  
gizon ertilaria  
goiz, egun-sentian.*

## JESUSEN IKASLEAK

Maisutza ederrena  
Jesus Jaunarena da  
zeru ta lurretan,  
utsik gabeko itza  
jakintzaz omendua  
giz arazoetan.

Jakintza nausi ori  
zerutik etorri zan  
gizonen artera,  
munduko bizitzea  
egi nagusienaz  
maitez askatzera.

Zorioneko dira  
giza seme jatorrak  
Jaunari entzunaz,  
zerutar ikasiaz  
gizona duintzen da  
gorengo zoriaz.

Zerutar bizitzea  
eskeintzen dau Jesusek  
maitasun onenaz,  
bizitza aintzatsua  
opa dau gizonentzat  
jakituriagaz.

Giza seme jatorrak  
zerura adi dagoz  
bizitz ilkorrean,  
zerutar zorionak  
deadar dagiotse  
biotz ederrean.

Zorion aintzatsua  
dago zeru goietan  
gizoneri deika,  
lurra eder dalarik  
goiak ez dau bardiñik  
zoria opaka.

## ERIoTZA

*Eriotz samingarri  
bizitza billa dabil  
ate guztietan,  
egiz indartsua da  
beraren almen sendoz  
oitura danetan.*

*Gizonaren zorra da  
bizia emotea  
mundu zabalean,  
giza egikizunak  
ekarri eben ori  
samiñen artean.*

*Jazoera gogorra  
biziaren aurrean  
giza eriotza,  
bizia estaltzen dau  
aldi baterakoan  
beraren erara.*

*Bizitza amultsua  
austuta geratzen da  
bakardadepean,  
giza indar guztia  
ixilik geratzen da  
autsaren menpean.*

*Gure bizitz mindua  
nasaitasun gurariz  
aurkitzen da lurrez,  
Jainko maitegarriak  
beragaz gura gaitu  
zoriontasunez.*

*Eriotza miña da  
biztuera gurariz  
betiraun guztian,  
Aintza eta Gorasun  
Jainko Jaunari  
betiko zorian.*

## EGUN-SENTI

*Egun-senti ederra  
soiñeko urdiñagaz  
agertu da goizez,  
bikaiña baten dator  
zeru goitik lurrera  
ederren ederrez.*

*Zerua eta lurra  
alkar begira dagoz  
edertasunian,  
biak eder direla  
zerua apaiñago  
zorion bidian.*

*Lurrak bizia damosku  
urrezko printz artean  
goizetik gabea,  
zerua zabal zabal  
urdin urretan dago  
lurrera begira.*

*Lurra orlegiz dago  
gozo bitxienetan  
argiak ondurik,  
zeru goi almentsua  
maitasunez onduta  
ederrez beterik.*

*Gizontzat da lurra  
baratz eta zugadi  
lorenz bikaindurik,  
osasun ta bakea  
asi dira lanean  
Jaunak lagundurik.*

*Zeru goi urrezkoa  
zuzenentzako da  
zorion betean,  
aintza eta gorasun  
maitasunez ondurik  
Aitaren etxean.*



## EGITE ONAK

Giza eginbideak  
era askotan dagoz  
bizian onduta,  
bizia aberatza da  
zeregin arloetan  
itzak aginduta.

Mendiko zeregiñak  
egiz, ederrak dira  
baserritarrentzat,  
menditik datorkiguz  
jauregirako olak  
osasungarritzat.

Basoa ta orleia  
biak bat egin dira  
ederrez jantzirik,  
baso bedeinkatua  
aritz opaka dago  
biziz indarturik.

Baratza orlegiak  
egite ontan dagoz  
ederrez ondurik,  
larrosa ta kabelin  
ta lirio zuriak  
lurra apaindurik.

Buru lan bikaiñenak  
gizonagandik datoz  
edertasunian,  
lurraren arazoak  
berez egia dakar  
esker onenian.

Arimaren almenak  
zeru goira daroe  
gizonen bizia,  
otoi ta maitasunak  
gizona ontzen dabe  
zerura begira.

## OBIRATZEA

*Gizona berez doa  
lurrealde onetatik  
illobi deunera,  
kanpo santu aratza  
beti, itxaroten dago  
giza elduera.*

*Arrokeririk ez dau  
bakardade santuak  
ixiltasunian,  
gogoz artuten ditu  
seme-alaba oro  
bere magalian.*

*Lurreko enda danak  
ortxe, urbiltzen dira  
isiltasunian,  
ez dago asarrerik  
maitasuna da nausi  
bizitz isilian.*

*Bakea eta poza  
itxaroten gizonak  
maitasun onian,  
geroa ez da amaitzen  
edertasun onenaz  
betiraun guztian.*

*Obiratze zuzenak  
poza dakar ondoren  
sasoia danian,  
agur eriotz mena,  
zabal zazu ateak  
betiko zorian.*

## BIZITZ MAITEGARRIA

*Egiz da maitegarri  
bizitz zoragarria  
lurraren gaiñean,  
eskerrak Jaun Altsua  
bizitz onen omenez  
euzko lurraldean.*

*Euskaldun lur maitean  
artu gendun bizia  
Jaunaren eskutik,  
guraso sinisdunak  
ta, erri Jaunzaleak  
biotzez ondurik.*

*Zerua eta lurra  
alkarturik egozan  
sinismen bidean,  
Euskalerra maitea  
gorantz adi egoan  
eskar onenean.*

*Euzko etxeko andrak  
jakituri bikaiñez  
ta gogo onenaz,  
egin oi zituezan  
ogi zoragarriak  
euren almenagaz.*

*Oi zein gozo ziran  
euskal baserritako  
ogi eztsuak,  
buru argiz egiñak  
guraso ta semeentzat  
ogi bikaiñenak.*

*Jakituriz egiñak  
egiz, benetan ziran  
txit osasungarri,  
baserriko bizia  
egiz, maitegarri zan  
benetan pozgarri.*

## AIZKOLDO ATXUR TXIKI

*Ene aizkide kutun  
euzko zoragarria  
edertasunean,  
gora gora zakusdaz  
bizitz edertasunez  
euskaldun artean.*

*Baserri aintzatsuan  
artu zendun bizia  
eguzki urretan,  
egiz esan bear dot  
egun zoriontsua  
basetxe aretan.*

*Gurasoak poz pozik  
semearen jaiotzaz  
zelaiaren aurrez,  
sola ta mendia  
adi adi egozan  
jaiotza ederrez.*

*Euskalerra maitea  
adi adi egoan  
baserri girora,  
sasiak nork garbitu  
ta lurra nork bikaindu  
eldu da etxera.*

*Aizkoldo, pozik, dabil  
lan eta lan lurean  
jakituri onez,  
zelai eta baratza  
bere bereak ditu  
lanaren omenez.*

*Usain gozozko lorez  
orbiztu da lur oro  
baserri maitian,  
giza ibiltariak  
arriturik doazi  
ederren aurrian.*

## ARDIA

*Ardi zuri zuria  
beeka doa mendira  
bide zior gora,  
eguna zoragarri  
eguzki gozoetan  
alaitasunera.*

*Mendia orlei orlei  
izarretara adi  
egon da gaubean,  
guztia dago bikain  
eguzkiz urretuta  
izadi aurrean.*

*Belarrak gora gora  
amets bidean datoz  
irudi bizian,  
ardi bedeinkatuak  
urriñetik dakuse  
bizia mendian.*

*Egunaren ederra  
dei ta dei dagokie  
mendi barrenian,  
gora ta ederrago  
oro almenentsu dago  
Maxaren aurrian.*

*Euskalerra ederra  
zoragarri da mendiz  
alderdi danetan,  
zerutik arturiko  
indar orleia dauka  
mendi bikaiñetan.*

*Ardi talde zuria  
zoramenetan dabil  
mendi orlegian,  
egunero dabiltzaz  
ames gozoenetan  
janari aurrian.*

## ARTZAIÑA

Gazte gaztetatikan  
ezagutu izan dot  
artzain arazoa,  
gauza berezi legez  
gogoratu izan dan  
arazo bikaiña.

Ardi bikain taldea  
ta euren inguruan  
artzaiña atsegiñez,  
zelai ertzean dago  
txabol zuri-gorria  
eguzki ederrez.

Pozez doaz ardiak  
beeka liraiñenetan  
gogo onez saltari,  
egun-senti eztiak  
amesgarri dirudi  
zeruetara adi.

Bart gabean gau ona  
izan dogu etxean  
aberastasunez,  
esne zuri bikaiña  
oparo emon dabe  
ardiak biotzez.

Orain zelaira doaz  
bizia indartuten  
belarren indarrez,  
egiz zoragarri da  
ardi zurien garra  
jateko ametsez.

Eguzki urrezkoa  
eta ardi zuriak  
batera dabiltzaz,  
ederretan eder da  
zelaiko irudia  
ardien pozagaz.

## IKASLEA

*Mutiltxo almentsua  
gora-goraka dator  
bizitza bidean,  
argia ta gogoa  
bere-baitan darabiltz  
indar onenean.*

*Lenengo ikasiak  
amesetan daroaz  
eskola maitian,  
egunik egunera  
mutilla gogor dabil  
izarren artian.*

*Jakintsu izan nai dau  
bizitz bikain onetan  
beartsuen aldez,  
asmorik bikaiñenak  
dabiltzaz bere baitan  
bizitza omenez.*

*Jakintza bidean  
sartu da ikasten  
argiak pozturik,  
jakituri bikaiñak  
indartzen dau mutilla  
bizia ondurik.*

*Gora goraka doa  
jakituri bidean  
buru almentsua,  
mutil gazte zintzoa  
garaiz indartzen doa  
argiaz burua.*

*Jakintza sail bikaiñez  
ondu nai dau bizia  
gizadi aurrian,  
jakituri indarrez  
lurtarrei laguntzeko  
zorion bidian.*

## OTOIA

*Egitan bikaiña da  
giza seme artean  
otoi itz jatorra,  
zerutik datorkigu  
otoiaren abotsa  
egitan ederra.*

*Jesus Jaun almentsuak  
irakatsi euskuzan  
eskari bikaiñenak,  
gizadia maite eban  
gogorik onenagaz  
agertuz bideak.*

*Gorantz eroan nairik  
bizia emon eban  
mundutarren aldez,  
itza ta maitasuna  
gogorik onenaz  
emonda biotzez.*

*Egitan ederra da  
giza semearentzat  
otoia lurrean,  
lurra eta zerua  
alkartzen ditu gogoz  
zorion bidean.*

*Aitaren maitasuna  
agertzen dau otoiak  
gizonen bizian,  
aintza Jaungoikoari  
ta gizonari bakea  
mundu zabalian.*

*Aintza goian Jaunari  
bizitza sorleari  
abegi onenaz,  
bakea gizonari  
lurtar arazoetan  
Jaunaren laguntzaz.*



## MAISUA

*Izen aintzagarria  
jakituri bidean  
susmoirik onenaz,  
jakituria dauka  
beraren itz barnean  
argitasunagaz.*

*Maisu izen jatorra  
gora goraka doa  
eskola bidean,  
jakituri ta itza  
biak batera doaz  
goratasunean.*

*Aintza eta gorasun  
biak on dagokioz  
Maisu jaun onari,  
egiazko jakintza  
beneragarri jako  
egiz gizonari.*

*Maisu jaunen egitez  
erria gora doa  
duintasunian,  
Maisu jaun agurgarria  
emon da zabal zazu  
argia lurrian.*

*Irakatsi on bidez  
gora gora doazi  
euskaldun erriak,  
buru ta biotza  
gizontasunez doaz  
zuzentzen bideak.*

*Erri zoriontsuak  
irakasle on-dunak  
bizitz ederrean,  
aurrera doaz beti,  
gogorik onenagaz  
bizitza aurrean.*

## ETXALDE

*Egiz da itz jatorra  
euskaldun etxaldea  
jakinduriagaz,  
baserri aintzatsua  
zelai artean dago  
argi biziagaz.*

*Baserri maitetsua  
bake pozetan dago  
orlegiz ondurik,  
intxaur sendo nausia  
etxe aurrean dago  
orritz estaldurik.*

*Etxea ta zugatza  
gogorik onenagaz  
alkar maite dira,  
udea aurrerantz doa  
ta intxaurrek elduten  
etxera begira.*

*Mutiltxo anka bizkor  
ba doa zugatzera  
ametsez beterik,  
intxaur zugatz nausia  
bete beterik dago  
garauz ederturik.*

*Perutxoren biotzak  
ez dauka negurririk  
pozaren garretan,  
intxaur garau gailenak  
opaka daukaz aurrez  
adarren puntetan.*

*Bere baitan pozezka  
artu ta artu diardu  
garau ederrenak,  
egiz, au dok sasoia  
zorionez beterik  
maleta nausiak.*



## GOIZEAN GOIZ

Goizean goiztar dator  
mendi gain tontorrera  
eguzki urrea,  
egitan zoragarri  
urdiña ta orleia  
alkarri begira.

Maitasuna dario  
urrezko eguzkiak  
dizdiz ederretan,  
mendi gain orlegiak  
agur pozgarriena  
damotso benetan.

Zeru eta mendia  
zoramenetan dagoz  
alkarren aurrian,  
eguzkia agurka  
ta mendia eskerka  
zoramen bizian.

Zeru goitik lurrera  
barri onez beterik  
dator eguzkia,  
lurra zerura adi  
esker-miñetan dago  
pozarren maitia.

Eguzki almentsua  
lur danera begira  
aurkitzen da goizez,  
mendi eta zelaiak  
adi begira daukaz  
ederraren pozez.

Bizitz agurgarria  
zeru altsutik dator  
almen bikaiñetan,  
ta lurralde apalak  
besoak zabaldurik  
artzen dau benetan.

## ERIoTZA

Gizartean dagon itz  
adierazgarria  
eriotz da egiz,  
iñork ere ez dautso  
burle miñik egiten  
giza gaiztakeriz.

Eriotzak daroa  
gizonaren bizia  
lur eder ontatik,  
eriotzak banatzen  
bizitz maitegarria  
giz almenetik.

Eriotz indartsuak  
bere eskuetan daukaz  
gizonen almenak,  
gizon zintzo onari  
zorionak damotsoz  
eskarrez betiak.

Eriotz indartsua  
gizonei deika dago  
etxe guztietan,  
toki danetan daukaz  
beraren menpekoak  
andre-gizonetan.

Andra-gizon onekin  
egiz, da lagun argi  
bizitz arduretan,  
bere gogo nausia  
ona egitea da  
bizitz ederretan.

Zoriona gura dau  
zentzudun gizonentzat  
betiraun guztian,  
bakea eta poza  
nai ditu gizonentzat  
zeru ederrian.



## GURUTZEA

*Gurutz Salbagillea  
ederrez bikain zara  
amairik bagean,  
ontasun oparoa  
gogorik onenagaz  
daukazu barnean.*

*Gurutz aintzagarría  
maitasun aundienaz  
adi adi zagoz,  
gizadi saminduna  
negarrez ikusirik  
gaiztasun erioz.*

*Gizadi gizaixoa  
samingarri egoan  
lurbira guztian,  
burubide osoa  
almenak ondatuta  
zoritxar aundian.*

*Egiz tamalgarria  
luditar egoera  
zoritxar azpian,  
alderdi danetatik  
ondatuta egoan  
obenén menpian.*

*Jesus gure Sorlea  
errukiz ondu zihian  
ludiaren aldez,  
gizon agertu zihian  
gizonei laguntzeko  
buru ta biotzez.*

*Dardarazko eriotz  
Ikaragarriena  
eldu zan Zugana,  
onartu egin zendun  
bizia opaldurik  
erritarrengana.*

## LURRIKARA

Ortzia urdin urdin  
arrigarri egoan  
beren almenetan,  
irudi bikaiñena  
agertuten goizez  
txit zoramenetan.

Urdiña ta izarrak  
eder-girotan dagoz  
almen onenean,  
girorik ederrena  
goizian agertzen da  
zeru-goi aurrean.

Egiz arrigarria  
dizdizera ederrez  
izarren argia,  
urdin bare baria  
izarrei adi dago  
ederrez jantzia.

Mendiak orlei dagoz  
euren edermenian  
guztiz orniturik,  
gora ta ederrago  
dago izadi oro  
almenez ondurik.

Bape usterik bage  
aizea ta trumoia  
datoz soiñuetan,  
gero eta baltzago  
agertzen da zerua  
illuntasunetan.

Dinbi eta danbaka  
asi da tximistea  
dardaraz ortzian,  
zarata gogorrena  
bildurgarrizko soiñuz  
entzun da zelaian.

## ERRUKIA

*Errukia gura dot  
bizitz galant onetan  
egiaz ondurik,  
arazo sustraitsuak  
daukaz bizitza garrak  
bere sormenetik.*

*Zelai zear doakit  
adimen txit larria  
beren gogoetan,  
errukia gura dau  
giza seme larriak  
eginkizunetan.*

*Samintasun aldian  
ortzirantza doakit  
adimen argia,  
urdin eder orretan  
sortu bedi on-giroz  
maitezko egia.*

*Errukia gura dau  
gizon adimentsuak  
lantei bikaiñian,  
egiagaz ondurik  
bizitz eder guztia  
zuzentasunian.*

*Bizitz arazoetan  
errukia gura dau  
giz ameslariak,  
zentzun ta errukia  
biotzez maite ditu  
langille trebiak.*

*Zentzundunen artean  
maitasuna da nausi  
errukiz ondurik,  
gora goraka doa  
ontasunaren garra  
egiak bizturik.*



## BIDEA

*Bidean gora doa  
euzko seme argia  
beraren gurariz,  
gora ta ederrago  
aurkituten dau lurra  
beren eder biziz.*

*Bidean gora gora  
edermiñetan doa  
txit bikaintasunez,  
goi-bidearen garra  
egiz, da zoragarria  
mendien almenez.*

*Zugatz orlei nausiak  
apaintzen dabe lurra  
ederrez jantzirik,  
urrezko eguzkia  
ta txori kantariak  
bidea ondurik.*

*Euzko seme jatorra  
zoramenetan doa  
mendi gaillurrerantz,  
nora-nai aditurik  
eder-bera dario  
lurretik zerurantz.*

*Euzko talentu zurrak  
gora gora doazi  
zorion bidetan,  
egitan eder dira  
euskaldunen bideak  
mendi egaletan.*

*Mendi zoragarriak  
daukaz Euskalerrriak  
ederrez ondurik,  
urre-bide zabalak  
doaz mendirik mendi  
apainki sorturik.*



## USOA

Egaz doa usoa  
arropuskerietan  
goizian goizetik,  
oro bikainki dago  
mendi zabal guztia  
arkaitzez ondurik.

Gora ta ederrago  
agertzen da bizia  
orlegiz jantzirik,  
usain gozozko lorez  
jantzita dago lurra  
eder-min bizirik.

Zerua eta lurra  
alkar begira dagoz  
irripar eztian,  
etxe zuri zuriak  
maite garretan dagerz  
zelai orlegian.

Erle zama gorrikkak  
zoramendetan dabiltz  
lore usaiñetan,  
eguzki ta eztia  
bikain, alkartu dira  
edertasunetan.

Uso zuri zuriak  
arat onat, dabiltzaz  
egalez aidean,  
zerua urdin urdin  
izarrak agurturik  
zentzun ederrean.

Euzko semea pozez  
uso zuriei adi  
baratz orlegian,  
ederra aidez dabil  
gogorik onenagaz  
mendien artian.

## MAXA

*Toki eder bat ba da  
Euskalerra guztian  
Maxa izenagaz,  
ez aundi ta ez txiki  
bien bitarteko da  
liraintasunagaz.*

*Gora-beraz eder da  
bikaiña goi guztian  
zorion almenez,  
egiz, arrigarria  
gizon jakintsuentzat  
diztira bikaiñez.*

*Mendi zoriontsua  
Bizkaiko magalean  
ederrez ondurik,  
eguzki ta aizea  
bere lagunak ditu  
ederrez jantzirik.*

*Mendi aintzagarrria  
ederrez apaindurik  
egal guztietan,  
gora-bera bikaiñez  
egoki ornitua  
edertasunetan.*

*Maxaren irudiak  
poztuten dau biotza  
beraren ederrez,  
emon da zabal zazu  
ain irudi bikaiña  
gizonen omenez.*

*Euskaldunen artean  
gora goraka zagoz  
edertasunean,  
osasun ta bakea  
zeure zeureak dozuz  
zugatzen artean.*

## GALBURUA

Sormen aundiko itza  
euskaldun Parnasoan  
dizdira ederrez,  
garau bikaiñez dago  
egoki ornitua  
txit edertasunez.

Solo zabal ederra  
galburuez ondurik  
bikain bikain dago,  
eguzki urrezkoa  
bizi emoten dabil  
oparo oparo.

Zerua eta lurra  
biak alkartu dira  
edertasunian,  
zeru urdiñetik dator  
bizi goratasuna  
eguzkiz betian.

Egunik egunera  
lurra edertzen doa  
galburu ederrez,  
itxaropen bizia  
datorkigu zerutik  
aberastasunez.

Euskaldun lur guztia  
zerura adi dago  
poztasun aundian,  
garitzaren ederrez  
eskermiñetan dago  
biotza lurrian.

Etorkizun bikaiña  
agertzen da soloan  
galburu ederrez,  
emon da zabal zazu  
ogi zuri bikaiña  
gizonen omenez.

## EREILLEA

*Zerutar ereillea  
egiz goragarria da  
mundu zabalean,  
zerua eta lurra  
gogoz alkartzen ditu  
maitasun bidean.*

*Baserritar semea  
bere eginkizunetan  
gizon bikaiña da,  
buruz eta biotzez  
beraren elburutzat  
egia artuta.*

*Baserriko mutillak  
zuzentasuna nai dau  
anaien artean,  
ontasun bidezkoa  
bizien onerako  
opa dau lurrean.*

*Bakezko lantegia  
bitxi bikaintzat dago  
euzkoen artian,  
alkartasun bikaiña  
bitxirik onena da  
giza on-bidian.*

*Euskal mendi magalak  
zelaira adi dagoz  
itxaropenetan,  
baserritar jatorra  
gogoz ondurik doa  
lan gurarietan.*

*Seme on-ereillea  
zur da buru-biotzen  
almen onenian,  
lorerik ederrenak  
bikainki batuteko  
izkuntz ederrian.*

## ILDAKOEN BIZTUERA

Ordua eldukeran  
Jetsemai izeneko  
etxaldera doa,  
ta ikasleai dirautse,  
jarri zaiteze emen,  
ni otoitzera noa.

Pedro lagun arturik  
biotz mintzen asi zan  
samin aundiagaz,  
giza seme gaisoa,  
ilteko zorietan  
larri, aurkituten naz.

Aurrerago joan da  
auspeztu ein zan miñez  
Aitari esanez,  
Ene Aita, al ba-da  
urrindu dakidala  
kaliz au samiñez.

Baiña ez bedi izan  
nik nai dodan eran  
zure naira baiño,  
Zu zara nagusia  
ta gu zure otseiña  
txiki apalkiro.

Ikaslengana doa  
ta lo aurkitzen ditu  
bere aizkideak,  
ordubete bakarrik  
ezin izan dozuez  
zabaldtu ateak?

Itzar egon zaiteze  
ta otoi egizue  
gogo biziagaz,  
zirikaldi larrian  
samindu ez zaitezen  
ezbear miñagaz.

## JERASA'KO DEABRUDUNA

Josu ta lagunak  
itxasotik urtenda  
ba-doaz lanera,  
ta gogo zikindunak  
urten eutsen bidera  
euren asmotara.

Illobian bizi zan  
gizon bildurgarria  
beren asmoetan,  
giz ikaragarriak  
kateiak austen zitun  
bere gogoetan.

Beti gau ta egunez  
mendietan ebillen  
gogorkerietan,  
Jesus ikusikeran,  
arin makurtuten zan  
Jesusen oiñetan.

Zer dozu zuk niretzaz  
Jaungoikoaren Seme  
guztiz Aintzatsua?,  
Jaunaren izenean  
ez naizu oiñazetu  
izaki mindua.

Zelan dozu izena  
galdetu eutsan Josuk  
ordu ederrean,  
taldea dot izena  
gogoz, erantzun eutsan  
danen izenean.

Lurralde aretatik  
ez egiala bota  
diño deabruak,  
bildurrez egozan ba  
zer jaso eitekean  
naigabez urtuak.

## PILATOSEN AURREAN

*Lendakari aurrean  
agertuten da Jesus  
asmo bikaiñetan,  
ta Pilatok dirautso,  
Juda Errege zara  
zentzun onenetan...?*

*Egitan zeuk diñozu  
erantzun eutson Josuk  
gogorik onenaz,  
Jesusen asmo onak  
egitan, eder ziran  
almen ederrenaz.*

*Gero abadeburu  
ta Lege-batzarrekoak  
salakuntz eikeran,  
Jesus, ixil, egoan  
ezer erantzun barik  
giza jarduneran.*

*Pilato, zoratx, egon  
ta Jesusi dirautso  
asmo gaiztoetan,  
ez al dozu entzuten  
zelako salakuntzak  
daukezan miñetan!*

*Alan be Jesus ona  
ixil ixil egon zan  
lagunen artian,  
ezer erantzun barik  
izkuntza gaiztoari  
asmo biurrian.*

*Pazko Jai bakoitzean  
preso bat askatzeko  
euken oiturea,  
nor askatuko dogu  
Jesus ala Barrabas  
giza artekoa...?*



## PILATOSEN AURREAN

*Pilatos arduratsu  
jezarrita egoala  
agintza lekuan,  
dei au bialdu eutsan  
bere emazte zintzoak  
ordu gorenguan.*

*Gogoz gauz bat dirautzut,,,  
zintzo orren gauzetan  
ez nastu burua,  
ameseta aldian  
gorriak ikus ditut  
berori dala-ta.*

*Ta bien bitartean  
Lege batzarrekoak  
euren buruekin,  
lagun taldea aizatu  
ta Barrabasen alde  
zurto ziran arin.*

*Zer nai dozue eitea  
Jesus deritxonari  
gizonen artean,,,  
guztiak gogo batez  
Gurutz gorrira ori  
bizien lurrean.*

*Zer egin dau ba txarto,,,?  
esan eban Pilatok  
guztien aurrean,  
Gurutz gorrira ori  
deitzen eben guztiak  
alkarren artean.*

*Gizon zuzen orregan  
ez dot ezer aurkitzen  
gaiztakerizkorik,  
Gurutze gorrira ori,,,!  
Gero ta zitalago  
erriak suturik.*

## EKAITZ BARETUA

Josuk Apolutuei  
gogo onez damotse  
ibilgura barri,  
oro eder egoan  
bakezko itxasoa  
urdin zoragarri.

Itxasoa men dago  
goitik eta beraiño  
urdin liraiñean,  
boga boga gizonak  
gogo onez jokatu  
urdiñen gaiñean.

Lenen agur bikaiña  
gizon taldeari  
urdin aratzean,  
zoragarritzko egon  
itxas agurgarria  
giro ederrean.

Txalupea ba doa  
zurki, uren gaiñean  
ametsez ondurik,  
agur lagun guztioi  
gogo onez dirautse  
biotz biotzetik.

Aize bildurgarria  
sortu zan itxasoan  
dardara bizian,  
izontzi ta gizonak  
ondatu eikeazan  
larritasunian.

Josuk itxasoari  
asmo onez dirautzo  
bakea zuregan,  
ta urak bereala  
asmorik onenaz  
bakez ondu ziran.

## ELBARRIDUN BAT

Jesus Kafarnaunen  
jentez inguraturik  
aurkitzen zalarik,  
gogoz dabiltz gizonak  
Jesusen barri billa  
buruz orbizturik.

Etxe inguru dana  
gizon eta andrazkoz  
ondu zan beterik,  
Josuk maitasun onaz  
Barri Ona emotsen  
biotz biotzetik.

Lau gizon bikain datoz  
Jesusen ingurura  
ardura biziaz,  
gizon onen asmoa  
egitan bikaiña zan  
gogorik onenaz.

Jendetzaren jendatzaz  
atetik ezin sartu  
gaisoa etxera,  
teillatua zulatuz  
aurkezturik gizona  
Jesusen aurrera.

Gizonen sinismenaz  
Jesus arritu ein zan  
egiaz pozturik,  
seme, zure obenak  
parkatu eiten jatzuz  
eskarrez ondurik.

An jarrita egozan  
giza idazlariak  
arritu ein ziran,  
ez ekien ba arek  
une bikain aretan  
norekin egozan.

## ESPIRITU SANTUAREN ETORRERA

Guztiak alkartuta  
aurkitzen zirelarik  
zorion batean,  
aize bolada antzeko  
burrundada sortu zan  
inguru danean.

Ta su antzeko miñak  
gori gori, dardaraz  
ikusi ebezan,  
eta ura zan poza  
bakoitzaren gaiñean  
jarri ziranean.

Jakituriz onduta  
izkuntza barri baten  
egien izketan,  
Jainkozko Gogo Deuna  
eurekin bat egoan  
arazo danetan.

Jerusalen maitea  
sinisdun Judar jentez  
ondurik egoan,  
zarata itzal ori  
entzuteaz batera  
ikaratu ziran.

Norberaren izkuntzaz  
egiten ikusirik  
arritu ein ziran,  
itz egiten dabenak  
ez al dira Gailarrak  
guztiak batian?

Zelan entzuten doguz  
guztiak itz egiten  
geure izkuntz ontan,  
guztiak arrituta  
zer da au iñotsoen  
batasun onetan.

## JESUS LOTUTA DAROE

*Jesus ta Apostoluak  
alkartuta egozan  
unetxo batean,  
Judas jende taldeaz  
eldu jaken bertara  
aldi okerrean.*

*Saldu bear ebanak  
ezaugarri donge au  
emon eutsen gogoz,  
lastandu dagidana  
orixe berori da,  
lotu zeuen asmoz.*

*Une aretan bertan  
Jesusengana joan  
ta lastandu eban,  
Josuk, onez, dirautso,  
zertan etorri zara  
gaitzez galbidean.*

*Orduan Jesusegaz  
egoan gizon batek  
beraren gurariz,  
burdin ezpata arturik  
belarrian jo eban  
giza gogorkeriz.*

*Gauz ori ikusirik,  
Josuk, gogoz, dirautso,  
gorde ezpata ori,  
espataz iltzailleak  
ezpataz ilko dira  
giza samingarri.*

*Lapur billa antzera  
gogoz urten dozue  
nire ingurura,  
Igarleak esana  
ongi betetu zeiten  
egizko erara.*

## JESUSEN ERIOTZA

*Eriotz bildurgarri  
nora zoaz ausarki  
dardara bizitan,  
ikaragarri zara  
zure ekintza miragarri  
tamalgarrietan.*

*Bizitzaren Jaubea  
bizitz eskeintzen doa  
munduaren aldez,  
egiz, arrigarri da  
Jesusen guraria  
gizonen omenez.*

*Bederatzi aldean  
Aitari deika dago  
samiñez beterik,  
egiz, minduta dago  
Gutziz Altsua dana  
itzez iraindurik.*

*Ta berealakoan  
etxeko Oial Santua  
zati bi egin zan,  
arkaitzak brintzez josi  
illobiak zabaldu  
illak biztu ziran.*

*Ta Jesus biztukeran  
illobitik urtenda,  
aidorki, ebilzan,  
bizi-lagunengana  
gogorik onenagaz  
aurkeztuten ziran.*

*Ta bien bitartean  
euntari ta lagunak  
bildurrez egozan,  
gogo onez esanez  
gizon zintzo au egiz,  
Jaungoiko Seme zan.*

## ODOL-JARIODUNA

*Jesus agurgarria  
itxas beste aldera  
barrero joan zan,  
lagun talde aundiak  
urten eutsen bidera  
arrimen gozoan.*

*Amabi urteetan  
odol-jario gaitzez  
samin ibili zan,  
neke aundiz minduta,  
diru danak galduta,  
osakuntz bidean.*

*Jesusen entzutea  
gogo onez arturik  
areganatu zan,  
errukia gura dot  
samin gogor onetan  
osasun bidean.*

*Egiazko sinismenez  
arrituta egoan  
Jesusen almenez,  
soiñeko ikutzea  
neiko da osatzeko  
zoriontasunez.*

*Jesusen ingurura  
gogoz urreratu zan  
uste onenean,  
soiñean ikuturik  
indar zoragarri bat  
asmatuz beregan.*

*Odol-jario min,  
bat-batean osatuz  
Jaungoiko almenez,  
gogoz galdetzen eban,  
nork ikutu deust niri  
zoramen indarrez.*

## ILDAKOEN BIZTUERA

*Barrero biztuterik  
onartuten ez eben  
Zaduzeotarrak,  
gora-bera aundi au  
argitu gura eben  
Jaunari eskerrak.*

*Jesusengana doaz  
biotza makurturik  
egiaren billa,  
zer egin bear dogu  
gora-bera onetan  
Jaun Agurgarria.*

*Moisesek esan euskun  
anai on bat ilkera  
semerik bagarik,  
alarguna artzeko  
emaztetzat ongarri  
biziaz ondurik.*

*Eta bigarrena be  
alarguna arturik,  
seme barik il zan,  
eta zazpiretatik  
iñork ez eban itzi  
semerik munduan.*

*Ta guztien ondoren  
andrea be il egin zan  
bizitz bakarrean,  
biztuera ondoren  
nor izango da senar  
betiko bizian...*

*Betiraungo zorian  
ez dago ez senarrik  
ezta emazterik,  
danak izango dira  
Aingeruen antzeko  
zoriaz ondurik.*



## PILATOSEN AURREAN

*Goi-goiz egun sentian  
batzarra egin eben  
Abade-Buruak,  
Zar eta idazlari  
izan zituen lagun  
aizkide kutunak.*

*Euren maltzur erara  
batzar dana eginik  
giza gaiztakeriz,  
Jesus eskus loturik  
Pilatona daroe  
maltzurkeri biziz.*

*Pilatok esan eutsan,  
Judaren Erregea  
zara zu egitan?,  
egoki zeuk diñozu  
esan eutsan Jesusek  
egizko itzetan.*

*Abadien buruak  
gogor, zalatzen eben  
euren gaiztakeriz,  
ezin eben ikusi  
Jesusen ontasuna  
euren marmarkeriz.*

*Ta Pilatok barriro,  
maltzurkeriz dirautso,  
ez al dozu itzik,  
begira zenbat diran  
salatzen zaituenak  
danak alkarturik.*

*Baiña Jesus maiteak  
ez eban geiagorik  
ezer be erantzun,  
Pilato arriturik  
baztertuta geldituz  
danen aurrez zuntzun.*

## KANAANDAR EMAKUME BATEN ALABA OSATZEA

*Eginkizun onetan  
ebillan Jesus Ona  
urratuz bizia,  
Jesus bere erriagaz  
ez zan iñoiz, gelditu  
lanetik lanera.*

*Ez eban nai izaten  
beren egiñen barri  
iñork jakiterik,  
ta beti ta beti  
egiñagaz batera  
egozan jakiñik.*

*Deabruak artuta  
alaba eukan ama  
dator Jesusengana,  
andra au jentilla zan  
baiña, gogoz, nai eban  
alabaren ona.*

*Diabru ori bota  
nire alabagandik  
mendiz urrutira,  
bake ona gura dot  
nere alabarentzat  
edertasunera.*

*Jesusen erantzuna,  
itzi semeei jaten  
egizko ogia,  
bidezkoa ez da-ta  
semeen ogi zuria  
txarrei emotia.*

*Ta andreak erantzun,  
txakurrak jaten dabez  
umeen ondakiñak,  
ta Jesusek diratutso,  
zòaz emendik andra  
ospatuz jasoak.*

## BERBARTU GORRA OSATZEN DAU

*Tiro aldetik urten  
ta itxasorantz doa  
Galile aldean,  
itxasalde bikaiña  
zoramenez egoan  
edertasunean.*

*Itxasalde bikaiña  
txoriz eta arraiñez  
onduta egoan,  
txori abeslariak  
abesti bikaiñenak  
jalkiten ebezan.*

*Larri larri egoan  
gor gaiso larria  
dakarre gizonak,  
osasuna gura-ta  
eskabidean dabiltz  
gizajo larriak.*

*Ta Jesus ikusirik,  
pozez onduten dira  
itxaso aurrian,  
Maisu Jaun Almentsua,  
erruki izan egizu  
gizon au onian.*

*Gor ta mutua zana  
bakarrean arturik  
Jesusegaz doa,  
pozik doa gizona  
Jainko Guztiz Altsuaz  
zelai zear gora.*

*Ordu bedeinkatuan  
gizona barritzen da  
Josuk ikutuaz,  
gaisoak joan ziran  
ta osasuna dator  
gorputza biztuaz.*

## OGI UGARITZEA

Lagun talde aundia  
Jesusegaz ebillan  
ainbat egunetan,  
gogoz jarraitzen eutsen  
egunik egunera  
jakintza bidetan.

Jesusen maitasuna  
egiz, gozagarri zan  
edertasunagaz,  
Jakituri argia  
gogoz, artzen eben  
Jesusen itzagaz.

Lagun talde aundiak  
urreratu jakozan  
Jesus Maisuari,  
ta jatekorik ezaz  
arduratu zan Jesus  
maitasunez bizi.

Lagun talde onegaz,  
arduraz, aurkitzen naz  
ordu itzal ontan,  
iru egun ba-dira  
nigaz dabiltzezala  
gose samiñetan.

Etxera bialtzea  
arriskuko gauza da  
ezbear estuan,  
euretariko batzuk  
urrindik etorriak  
esturasunean.

Lur gaiñean jarteko  
agindu eutsen danei  
unetxo batean,  
zazpi ogiak arturik  
nai aiña emon eutsen  
asetu artean.

## JESUS PILATOREN AURREAN

*Gauza arrigarriak  
ikusteko egozan  
gizonen artian,  
goiz, abadeburuak  
batzarra egin eben  
legezko bidian.*

*Euren bideak artu  
ta gogorkerietan  
ebiltzan lurrean,  
giza gaizto asmoak  
gogorkeriz dabiltzaz  
ezbear bidean.*

*Asmorik gaiztoena  
euren artean sorturik  
gurari okerre  
Pilatogan daroe  
Jesus guztiz maitea  
euren asmo txarrez.*

*Pilatok gaiztakeriz  
galdera au egin eutsan  
biotz biotzetik:  
Judarren Erregea  
egiaz al zara Zu  
gizon danen goitik?*

*Zeuk diñozu nor naizen  
esan eutsan Jesusek  
almen guztiagaz,  
ta abade buruak  
gogor salatzen eben  
asmo okerrenaz.*

*Pilatok barriro be,  
ez dozu erantzuten  
gizonen aurrian...?  
Jesus, ixil, egon zan  
ezer esan gaberik  
ondoren guztian.*

## JETSEMANIN

*Jetsemani ederra  
beti, begira dago  
alkartasunari,  
lurraren giro onez  
maitasuna opatuz  
giza batzarrari.*

*Jesusek bialduei  
gogo onez dirautse  
agindu bikaiña,  
jesarri zuek emen,  
Ni otoi eiten noa  
Aitaren aurrera.*

*Pedro, Santiago, Jon  
beragaz arturik  
larri, aurkitzen zan,  
samiñik gogorrena  
asmatuten biotzez  
estura aretan.*

*Emen, egon zaiteze  
ta itzarririk egon  
alkartasunean,  
aurrerago joan ta  
lurrean auspazu zan  
otoitz onenean.*

*Aita Jaun agurgarri,  
zuk dana egin zeinke  
borondate onaz,  
baztertu niregandik  
samintasun itzal au  
maitasun onenaz.*

*Baiña ez bedi izan  
nik nai dodan erara  
zure naira baiño,  
zuk gogoan dozuna  
izan dedilla beti  
egiña oparo.*

## GAZTE ABERATSA

*Etzetik urtenda  
gogorik onenaz  
ba doa gizona,  
Josugaz aurkitzen da  
ames gozoenetan  
Jaunari begira.*

*Gogorik onenagaz  
makurtzen dau bizia  
Jesusen aurrean,  
Jauna, zer egin neike  
bizia lortuteko  
zerura bidean?*

*Jesusen erantzuna  
jakituri guztiaz  
bikaiña izan zan,  
ederretan ederra  
gizonak poztuteko  
lurreko bizitzan.*

*Iñor ez dozu ilko,  
lapurretarik ez ein,  
eskontza ez loitu,  
ez izan guzurlari  
zuzen zaletasuna  
egiz zuregandu.*

*Gizon arek orduan  
pozik aundienagaz  
dirautso Jesusi,  
guzti ori egin dot  
zerutar agindua  
eskeiniz lurrari.*

*Baten bearrez zagoz,  
daukazun dana saldu  
ta emon beartsuei,  
zeru goian artzeko  
bateko eun saria  
ondo egiñari.*

## JERIKOKO ITSUA

Jerikora bidean  
biotzez eginiko  
ibili aldian,  
egoki onduko da  
Isrraeldar taldea  
joan etorrian.

Jerikora doazi  
Jesus eta lagunak  
gogo bikaiñenaz,  
onaren irudia  
zabaldu gura leuke  
on dana egiñaz.

Jerikotik urteran  
Bartimeo gaisoa  
eskeko ta itsua,  
agertzen da bidean  
giza gaiso mindua  
naigabez betea.

Jesus Nazaretarra  
bidean etorrela  
kontura zanean,  
pozagaz orbiztu zan  
ordu bikain aretan  
gizonen artean.

Jesus Dabiden seme,  
erruki zaitte nigaz  
ordu larri ontan,  
gaisorik ta minduta  
aurkitzen naz samiñez  
ordu larrietan.

Deitu egiozue  
dirautsoe Jesusek  
gaisoaren aldez;  
uste on izan, zoaz,  
zeure egizkoa dan  
osasun indarrez.



## MAASTIKO LANGILLEAK

*Jesus gogo onagaz  
beraren lankideak  
argitu gurarik,  
izketan asi jaken  
jakituri onenaz  
gizonak ondurik.*

*Egizko gizon batek  
masti bat landu eban  
bizitza bidean,  
ta aren inguruan  
esi zoragarri bat  
asmo ederrean.*

*Gauz onek egin eta  
urrutira joan zan  
bizitz eder billa,  
aizkideen eskuetan  
lendabizi itzirik  
ardura guztia.*

*Aldia eldukeran  
morroia bial eutsen  
nekazari arei,  
fruturik gozoena  
onengandik artzeko  
argi eta garbi.*

*Baiña nekazariak  
gogor, artu eben  
morroi gizajoa,  
emonak emon ein da,  
gogoz bialdu eben  
jaunaren etxera.*

*Ta beste bi ondoren  
asmorik onenagaz  
bialdu eutsezan,  
ta zigorrez mindurik  
bata il egin eben  
asmo gaiztoetan.*

## JESUS LEGE BATZARREKOEN AURREAN

Jesus egun gorrian  
apaiz nausi aurrera  
daroe samiñez,  
Lege gizon guztiak  
gogoz alkartu ziran  
Jesus mindu nairik.

Pedrok be gogo onez  
jarraitu egin eutsan  
arduraz ondurik,  
Apaiz Nagusiaren  
etxe eder barruan  
suaz beroturik.

Lege-batzarrekoak  
ta Abade-buruak  
gogorki ebiltzan,  
Jesus onaren aurka  
asmaualak asmetan  
ekintza baltzetan.

Abade-buru eta  
Lege-batzarrekoak  
gogorki ebiltzan,  
Jesus onaren aurka  
testigantza billatzen  
gaiztakerietan.

Euren asmo guztia  
Jesuseri eriotza  
emotea bait zan,  
ta ez eben aurkitzen  
euren guraritako  
zalantza egitan.

Geuk, aurrez, entzun geuntsan  
gizonak egindako  
Jaunaren etxea  
botako dot lurrera  
eta barri bat egin  
aukera onera.

## JESUS LOTUTA DAROE

*Jesus itzez ebillela  
lagun talde aundia  
beregán eldu zan,  
Judas ta adiskideak  
asmo gaiztoenagaz  
gogor eldu ziran.*

*Ezpata ta makillaz  
arek euken gogoa  
gaiztakerirako,  
biotza lertzen euken  
barru dana bizturik  
edozertarako.*

*Galdu bear ebanak  
ezaugarri gogorra  
emon eutsen gogoz,  
danak egozen bizi  
Jesus Jaunaren aurka  
txarrerako asmoz.*

*Galdu bear ebanak  
itzez ta egitez  
agerturik dana,  
nik laztantzen dodana  
uraxe berbera da  
zigortu nai dana.*

*Ta Judas saltzailleak  
mosu ustel bategaz  
saldu egin eban,  
gaiztakeri guztiaz  
esan eutsen lagunei,  
artu ta eroan.*

*Judastar talde arek  
egin eban berea  
asmo baltzenagaz,  
Jesusek esan eutsen,  
lapur baten aurka lez  
izan da niregaz.*

## TENTALDIAK BASAMORTUAN

Gogo deunez beterik  
Jordandik etorri zan  
asmorik onenaz,  
ta Espiritu Santuak  
basamortura eban  
asmo bikaiñenaz.

Ta emen, datorkioz  
zirikaldi gogorak  
egun larrietan,  
egun larri areitan  
ez eban ezer jan  
samintasunetan.

Diabru tentalarik  
maltzurkeri guztiaz  
auxe esan eutsan,  
Jainko seme ba-zara  
arri gogor oneri  
ogitzeko esan.

Jesusen erantzuna,  
gizona ez da bizi  
ogiaz bakarrik,  
eite on ta otoiak  
bide bidezko ditu  
bizia ondurik.

Mendi bizkar batera  
igonagaz batera  
poztasun guztiaz,  
lurtar erreiñu danak  
erakutsi eutsozan  
asmorik onenaz.

Almendun gizon zurra,  
egiz, gurtzen ba-nozu  
mendi gain onetan,  
au zure izango da  
beraren eder guztiz  
bizitz ederretan.

## JESUS BIZTU DA

*Aste leen egunez  
zoramen ederretan  
Jesus berbiztu zan,  
ta Mari Madaleni  
agertu izan jakon  
zorion bidetan.*

*Andrazko onen poza  
egiz, zoragarri zan  
Jesusen aurrean,  
astuntasun baltzetik  
argitara ekarriz  
zorion bidean.*

*Zazpi diabru gaizto  
gogoz kendu eutsazan  
beraren barnetik,  
askatasun biziaz  
barnea zabaldua  
gogo onez bizirik.*

*Eta, pozez, Madalen  
arin arin joan zan  
barri emotera,  
eta guztiak barrez  
pozagaz urtu ziran  
egizko erara.*

*Gutziz, zail, eiten jaken  
Jesus bizi zala-ta  
ontzat artutea,  
baiña Madalen onak,  
gogoz, esaten eutsen  
egi bidezkoa.*

*Urrengo egunetan  
areitariko biri  
gogoz agerturik,  
ezin eben sinistu  
Jesus bizi izatea  
onduraz beterik.*

## MAGNIFIKAT

*Nire arima onek  
Jainkoa goratzen dau  
bizitza onetan,  
nire gogo guztia  
Jaunagaz poztuten da  
edertasunetan.*

*Mirabe onen itza  
entzun dau Jaungoikoak  
maitasun girotan,  
ta apaltasun giroa  
gogorik onenagaz  
artu dau benetan.*

*Egiz, aurrerantzian  
agurrik beroenak  
eskeiniko dautsez,  
Jainko Alguztidunak  
bedeinkatu ditu-ta  
zoriontasunez.*

*Aren izena Deuna da  
ta gogorik onenaz  
artzen dau gizona,  
giza egiazkoa  
ez dau iñoz be izten  
gaizki bertan bera.*

*Zurrak eta zuzenak  
bere-bereak ditu  
salbamen bidean,  
Jaungoiko Almenetan  
dauka gizon zuzenak  
bizia lurrean.*

*Gizon zuzenak barriz  
ondasun onez bete  
ta poztu ein ziran,  
ta aberats gogaituak  
esku uts ezer barik  
bialdu zituan.*

## JESUS GURUTZEAN

*Sei seiretan asi ta  
bederatziak arte  
gautu egin zan,  
lur gizajo guztia  
neke larri miñetan  
estaldu egin zan.*

*Ta bederatzietan  
samiñik garratzenak  
eltzen asi ziran,  
ai ene Jaungoikoa,  
ai ene Jaungoikoa,  
samintasunian...*

*Zergaitik itzi nozu  
bertan-bera bakarrik  
ordu larri ontan,  
zoritxar danen miña  
eldu da niregana  
ordu latz onetan.*

*Samin ori entzunik  
an egozan batzuek  
gogoz asi ziran,  
Eliasi dei dabil  
neke miñez beterik  
larritasunian.*

*Euretariko batek  
belaki bat artuta  
ozpiñez beterik,  
kañuberaren puntan  
edaten emon eutsan  
biotz gogorturik.*

*Jesusek ordu artan  
zarat aundi egiñaz  
arnas emon eban,  
ta etxeko oiala  
zatibitu egin zan  
ondamendietan.*

## JOSU BERBIZTURIK

Alan bear izanik  
goizalde argitsuan  
Josu berbiztu zan,  
lurrari argi eiten  
agertu bear eban  
goiz on argitsuan.

Lenen len Madaleni  
agertu izan jakon  
borondate onaz,  
zazpi diabru larri  
kendu eutsazanari  
maitasun guztiaz.

Ta Madalen argia  
Barri ona zabaltzen  
joan zan goizetik,  
egite ain aundiaz  
lagun danen biotza  
argitu gurarik.

Baiña areek neke-miñez  
Madalenaren itza  
ez eben onartu,  
naigabetsu negarrez  
aurkituten ziran  
biotzaz larritsu.

Jesusen guraria  
egiz aintzagarri zan  
egite onetan,  
baiña giza biotzak  
illunduta egozan  
jazoera ontan.

Azkenez, asmo onez  
amaika ikasleai  
urreratu jaken,  
euren sinistuerea  
samintasun guztiaz  
aurrez, bota eutsen.



## APOSTOLUAK BARRIRO DATOZ

Poztasun aundienaz  
Jesusengana datoz  
amabi autatuak,  
egin eben guztia  
dirautse Jesuseri  
biotz urrezkoak.

Jesus Irakasleak  
gizon autatu arek  
beragaz arturik,  
asmorik bikaiñienaz  
Betsaidara joan zan  
ongi-naiz ondurik.

Lagun talde zintzoa  
guzti ori jakinik  
beragaz joan zan,  
Josuk maitasun onez  
Jaungoikoari buruz  
argitzen ebazan.

Izketa pozgarria  
bene-benetan zan  
Jesusen aurrean,  
lagun talde aundi au-  
on -bialdu egizu  
eskatze onean.

Jesusen erantzuna  
maitegarri izan zan  
aizkide artian,  
zabaldu biotz orrek  
ta emon eiozue  
jaten nai aiñian.

Bost ogi ta arrain bi  
dira gure eukiak  
momentu onetan,  
ta jendetza guzti au-  
ezin asetu geinke  
ordu latz onetan.

## JESUSEN IRUDI ALDATZEA

*Pedro, Santiago ta  
Jon Beragaz arturik  
mendira igo zan,  
asmorik bikaiñenaz  
joan zan goietara  
alkartasunean.*

*Otoia egikeran  
Jesusen arpegia  
aldatu egin zan,  
eta Aren jantziak  
ederrez dizdiratsu  
zuri biur ziran.*

*Jesusen lagun biak  
Eli ta Moises ziran  
ames itzaletan,  
Jerusalen larrian  
zer jazo bear eban  
egun baltz aretan...*

*Pedro ta lagunak  
lan asko ein ondoren  
nekatuta egozan,  
alan be, Jesus eta  
aren lagun maitiak  
ikusi ebezan.*

*Gizonak aldekeran,  
Pedrok Jesus Jaunari  
gogoz esan eutsan,  
iru txabola eder  
sortu daiguzan emen  
gizonen otseintzan.*

*Ederrena Zuretzat,  
besteak Moisesentzat  
ta Eliasentzat,  
ta laiñoa sortu zan  
egiz bildurgarria  
giza asmoentzat.*

## ARERIOAK MAITATU

*Irakatsi nausia  
damosku Jesus Onak  
giza gaisoari,  
on bearreko eban  
zuzentasun bidea  
mundu larriari.*

*Lurtar zuen etsaiak  
maitatu egizuez  
sasoi onenian,  
gorroto baltza kendu  
bakea izan dedin  
guztion artian.*

*Iraintzen zaituenei  
parkatu txarkeria  
gogorik onenaz,  
matraillaren baten  
jo eiten jaituztenak  
eskertu graziaz.*

*Eskatzen deutzunagaz  
biotz zabala izan  
edozein ordutan,  
giza gogo zabala  
saridun izango da  
beti iraunetan.*

*Gogo on guztiagaz  
maita egizu laguna  
bizitza onetan,  
bake zoriontsua  
betiko izan dedin  
bizitz ederretan.*

*Errukiorrak izan  
errukia lortzeko  
betiraun guztian,  
maitasunetik dator  
eskar bide guztia  
gizonen artian.*

## ARERIOAK MAITATU

Jesusek munduari  
onginaiez dirautsoz  
gauza bikaiñenak,  
maitatu egizuez  
on-gura guztiagaz  
lurreko etsaiak.

Maitatu egizuez  
arerio maltzurak  
bizitz eder ontan,  
bat bere, bertan bera,  
iñioiz be itzi barik  
ardura bagetan.

Eskatzen dauanari  
ez itzi emon barik  
gogo guztiagaz,  
bear izan estuan  
aurkitzen da gaisoa  
samintasunagaz.

Zueri egitea  
nai zenduken guztia  
bikain bikaiña da,  
zuek era berean,  
ondo, joka eizue  
anaitasunera.

Pekataria bere,  
gogoz, maite ditue  
euren aizkideak,  
zure ben gurariak,  
gogoz, maite bear dauz  
etsai txarkeriak.

Errukiorrak izan  
gogorik onenaz  
Aitaren antzera,  
ez epaitu txarkeriz  
gaiztakerizko ziñez  
ondamen erara.

## JESUS NAZARETEN

*Jesus Galileara  
etorri zan barriro  
gogo onenagaz,  
ta bere entzutea,  
arinki, zabaldu zan  
bizitz on asmoaz.*

*Nazaretaratu zan  
erri on almentsura  
ordu bikaiñean,  
ta oitura ebanez  
irakurte bikaiñak  
egin oi ebazan.*

*Espiritu Santua  
almen onenagaz  
beragaz egoan,  
Barri on emotera  
bialdua izan zan  
Aitaren eskolan.*

*Liburu jakintsua  
arduradunari emon  
ta jarri egin zan,  
eta Nazaretarrak  
gogorik onenagaz  
entzuten egozan.*

*Arriturik iñoen,  
au ez al da izatez  
Joseren semea?,  
Kafarnaun errian  
egin dozun guztia  
eder da eitea.*

*Emakume alargun  
asko izan zirian  
Isrrael aldian,  
ta areitarikogana  
ez zan ezer bialdu  
laguntza onian.*

## ELBARRIDUN BAT OSATZEN DAU

*Irakasten dagola  
jendetza aundienak  
jatorkoz urrindik,  
Galilea ta Juda  
biak bat egin dira  
gogoz alkaturik.*

*Jakituriak artzen  
gogoz dagoz erriok  
Jesusen aurrean,  
izkuntz bikaiñagorik  
iñoz, ez da entzun  
lurraren gaiñean.*

*Osakuntza bikaiñak  
egiz, dagiz Jesusek  
beren almenagaz,  
inguru danetako  
jende agurgarriak  
alkartuz Beragaz.*

*Elbarridun gizona  
dakarre Jesusgana  
gogoz osatzera,  
ta jendetzaren jendez  
iñola be ez euken  
sartzerik barrura.*

*Gizonen zurtasunez  
teillatua zulatuz  
bideratu ziran,  
elbarridun gaisoa  
Jesusen aurrez dago  
itxaropenetan.*

*Sinismenaren aurrez  
Jesusek, egiz, dirautso  
elbarridunari,  
zure oben guztiak  
parkatuta daukazuz  
eskerrak Jaunari.*

## ARERIOAK MAITATU

*Entzuten nozuenoi  
gogo onez dirautzuet  
egirik onena,  
gaitz egiñak parkatu,  
alkar maite egizue,  
au da salbamena.*

*Gaizki esailleari  
parkatu egiozu  
gogorik onenaz,  
emon da zabal zazu  
ontasuna bizian  
maitasun bikainaz.*

*Eskatzen dautzuenari  
emon ogi zuria  
biotz guztiagaz,  
ostuten dautzuenari  
ez eska biurtzerik  
gogorkeriagaz.*

*Biurtuko daunari  
aurretiaz emonda  
zer irabazten da,  
pekatariak bere  
ba-damotse alkarri  
pozaren erara.*

*Zuek maite egizuez  
arerio gogorrenak  
ontasun guztiaz,  
egitan, or bai dago  
giza zuzentasuna  
maitasun onenaz.*

*Maitasun aundiz emon  
giza beartsuari  
lurralde onetan,  
sari aundiagoa  
beti, izango bai da  
zeru ederretan.*

## IRUDI ALDATZEA

*Pedro, Santiago, Jon  
iru gizon autatuak  
beragaz arturik,  
Jesus mendiratu zan  
otoia egitera  
gurariz bizirik.*

*Otoia egikeran  
Jesusen arpegia  
aldatu egin zan,  
eta Aren jantziak  
dizdizera ederrez  
zuritu ein ziran.*

*Ta gizon bi Beragaz,  
Moises eta Elias  
izketan ebiltzan,  
gauzarik ederrenak  
pozez, gogoratuaz  
ordu bikaiñetan.*

*Gizon ospetsu onek  
aintzaz agertzen ziran  
batzar ederrian,  
izketa bikaiñenaz  
Jazoera aundia  
oroituz bizian.*

*Pedro ta lagunak  
logureak arturik  
aurkituten ziran,  
baiña larri larririk  
batzarraren omenez  
itzarrik egozan.*

*Irakasle maitea,  
ondo, aurkitzen gara  
batzar santu ontan,  
iru txabol eginik  
Zuri, Pedro, Eliri,  
esker on bidetan.*



## SEME ONDATZAILLEA

*Gizon ospetsu batek  
bere inguruetan  
seme bi eukazan,  
euretarik gaztenak  
aitagana elduta,  
onan, esan eutsan:*

*Aita maitegarria,  
egitan zara zuzen  
bizitza maitian,  
gogorik onenagaz  
emoidazuz neureak  
bake on batian.*

*Semerik gazteena  
ondasunak pillatuz  
beraren erara,  
ba-doa mundu zear  
irripar ez tietan  
atseden artzera.*

*Amets zoragarriekaz  
arro dabil mutilla  
besterik ez legez,  
diabrua zirika  
ta mutilla saltoka  
aberastasunez.*

*Uste baiño lenago  
ondasunak galdurik  
larri da mutilla,  
ta zer-janik ezean  
txarri-zain geratu zan  
mutil gizajoa.*

*Txarrien jatekoaz  
bizi nai izan eban  
estura larrian,  
baiña au zoritxarra,  
txarri jatekorik be  
ez eukan lurrian.*

## SEME ONDATZAILLE GIZAJOA

*Argi bideratuta  
berekautan iñoan  
guztiz damuturik,  
Nire Aitarenean  
morroi taldeak dauka  
zer jana bizirik.*

*Eta ni zoritxarrez  
gosez ilbearrean  
aurkitzen naz larri,  
au ez da bidezkoa  
semea aurkitzea  
gosez barregarri.*

*Neure Aitarengana  
damuz biurtuko naz  
ta auxe esango deusatz,  
pekatu egin neban  
ait onaren aurrean  
neure ezbeartzat.*

*Nik ez dot merezi  
zure seme izenik  
neure zoritxarrez,  
kriadu lez ar nazu  
etxeko lanetan  
biotz maitasunez.*

*Gogo onez jaiki  
ta aitarengana jun zan  
asmorik onenaz,  
ta urrin joialarik,  
bidera urten eutson  
maitasun guztiaz.*

*Aitaren matiasuna  
txit arrigarria zan  
semearen aurrez,  
urreratuz batera  
zamatik oratuta  
agurtuz biotzez.*

## SEME ONDATZAILLEA ESTU EGOAN

*Semeak damaturik  
ait onari dirautso  
biotz guztiagaz,  
aita, pekatu ein nun  
Zeru ta zure aurka  
gaiztakeriagaz.*

*Nik ez dot arrezkero  
izen onik merezi  
zeru-lurren aurrez,  
parkamena bakarrik  
eskatzen dautzut aita  
zoriontasunez.*

*Baiña aitaren gogoa  
oroz goitik egoan  
seme biurkeraz:  
galduta ebillena  
guztiz zurtuta dakust  
maitasun guztiaz.*

*Baiña aitak morroiei  
gogoz, agindu eutsen  
bere jokabidea,  
lengo joko azturik  
bizitz baten aurrean  
asmo onetara.*

*Ekarri egizue  
soiñekorik onena  
jantzi izan daian,  
erestun bikaiñena  
esku zabalerako  
dotore bizian.*

*Zekor on bat ekarri  
eta il egizue  
mendien aurrian,  
egun zoragarri bat  
aundietsi dagigun  
seme izenian.*



## SEME ONDATZAILLEA

*Aren seme nausia  
soloan zan lanean  
zintzotasunagaz,  
etxera urreratuz  
egitan arritu zan  
soiñu iskanbillaz.*

*Egitan arriturik,  
zer izan eitekean,  
galdezka egoan,  
morroitariko batek  
gogorik onenagaz  
argiz itzi eban.*

*Zure anai Damutu  
etxera etorri da  
biotza aldaturik,  
aren etorreraz  
biztu da etxaldea  
pozez orniturik.*

*Aitak pozaren pozez  
agindu bikaiñena  
emon dau lurrean,  
Ernesto ta Kanuto  
zoaze kortaldera  
sasoi onenean.*

*An dagon txal onenaz  
ospatu bear dogu  
seme etorrera,  
ta seme nagusia  
asarretan egoan  
zarat aretara.*

*Aitak, onez, dirautso  
seme, zureak dira  
ondasun guztiak,  
baiña etorrera au  
ospatu on dagigun  
on-giroz betiak.*

## OGI UGARITZEA

*Galileatik urten  
ta itxas bestaldera  
arduraz joan zan,  
lagun talde aundiak  
gogorik onenagaz  
jarraituten eutsan.*

*Jende talde aundia  
goseaz ikusirik,  
Pedrori zirautzan,  
zelan emon geinkio  
ogia ainbesteri  
bakardade ontan...*

*Josuk, ondo, ekian  
zer egin bear eban  
jentalde guztiaz,  
zirikatuz dirautse  
zer egin ete geinke  
lagun taldeagaz.*

*Ander Apostoluak  
bost ogi ta arrain bi  
eukazan beregan,  
baiña onek zer dira  
ainbeste lagunentzat  
estura orduan.*

*Josuk ogiak artu  
eta jende artean  
banandu ebazan,  
ta arraiñak arturik  
gogorik onenagaz  
bardin egin eban.*

*Guztiak jan ondoren  
izugarrizko pillak  
geratuten ziran,  
jendeak arriturik  
gurtuten eban Jesus  
asmo onenian.*

## JUDAR SIÑISGOGORREI DIRAUTSENA

*Ni emendik ba-noa  
ta zuek nire billa  
zabiltzez lurrean,  
au egiz, zoritxarra  
zeuen gaiztakerian  
ildu bearrean.*

*Ni noan goi zerura  
ezin zare urbildu  
asmo kaskarretan,  
gogo bikain aundia  
bear da zerurako  
asmo onenetan.*

*Argi dirautse guztiei,  
zuek lurtar zarie  
Ni goi-goikoa naz,  
zuen pekatuetan  
gaitzez ilko zareela  
samin aundienaz.*

*Nor zara ba Jaun ori  
gogoz galdetu eutsen  
bizien lurrean,  
Jesusen erantzuna  
guztiz egokia zan  
gizonen artean.*

*Zueri buruz ba dot  
zer erantzun bizirik  
arazo aundietan,  
ona bialdu nauna  
guztiz egizale da  
zuzentza bidetan.*

*Aregandik ikasi  
ta agertzen deutzuet  
guztia,  
gogoz artu eizue  
salbamen onerako  
zerutar egia.*

## BEZATAKO URTEGIAN

Egiz arrigarri da  
Bezatako urtegia  
bost aterpegaz,  
aterpe bikaiñetan  
gaiso, itsu ta erren  
egozan dardaraz.

Izan bere egitan  
Jaunaren aingeruak  
agertuten ziran,  
urari eragiñez  
lenen, sartuten zana  
osatu eiten zan.

Aspaldiko urtetan  
gaisorik egoana  
urondon egoan,  
Jesusek esan eutsan,  
osatu nai al dozu  
ur gozo gozoan...

Ura dardarzatzean  
ez dot laguntzaillerik  
begien aurrean,  
besteen bat lenago  
sartzen da uretara  
osasun eskean.

Josuk, gogoz, diratuso,  
jaiki zaitetz gaztetxo  
gogorik onenaz,  
artu ogetxo ori  
ta zoaz arin arin  
maitasun guztiaz.

Itz agurgarri onek  
entzunagaz batera  
samiña joan zan,  
jendea arrituta  
adi begira eukan  
zapatu aretan.



## ARTZAIN ONA

*Okerreko atetik  
sartuten dan gizona  
egiz lapurra da,  
atetik sartzen dana  
bide onetik doa  
artzain zuzena da.*

*Gizon pin zuzenari  
ateak gertu jakoz  
lanaren bidean,  
eta ardiak, zurki,  
ezagututen dabe  
abotsa aidean.*

*Artzain bikain zuzena  
artalde aurrez doa  
alaitsu, zelaian,  
ta ardiak gozaro  
kantu bikaiñez doaz  
artzaiñen jarraian.*

*Baiña artzain arrotzari  
ez dautse jarraituko  
beraren bidetan,  
iges egingo dautse  
atzerri abotsetik  
okerkerietan.*

*Josuk argi ta garbi,  
diratutse gizoneri  
elkartasunean,  
neu naz zuen atea  
giza seme danentzat  
bizitza aurrean.*

*Niregaz dabilena  
egi bidetik doa  
zuzentasunean,  
egiz aurkituko dau  
zorion ederrena  
zintzoen artean.*

## JESUSEN LARRIALDIA JETSEMANIN

Jesus ikasleakaz  
Jetsemani izeneko  
etxaldera doa,  
izketa mamintsuak  
egin gurarik dabil  
zerutar erara.

Jezarri zuek emen,  
dirautse ikasleai  
maitasun guztiaz,  
otoitz eitera noa  
mundu onaren aldez  
gogorik onenaz.

Era berean Pedro  
ta Zebedeotarrak  
beragaz arturik,  
mintzen eta larritzen  
asi jakon biotza  
samiñez ondurik.

Zerbait aurrera joan  
ta auspeztu egin zan  
otoia egiñez,  
ene Aita On Jauna,  
kendu samin gorri au  
zeure borondatez.

Ta ikasleakana  
etorri eta lotan  
aurkitu ebazan,  
ta Pedrori dirautso,  
ezin zare egon zur  
ordu bat benetan.

Egon zaitetze esnarik  
ta otoiz egizue  
asmo onenagaz,  
etsaia etorkeran  
ondatu ez zaiezan  
maltzurkeriagaz.

## PARISEUEKIN EZTABAIDAN

*Jesusen entzutea  
zabal ebillen lurrez  
gizonen artean,  
nunnaitik datorkioz  
gizon jakintzuenak  
izketa bidean.*

*Ikasletarikoak  
urreratu jakozan  
bazkal mai ondora,  
gogorik onenagaz  
ondurik bazkaria  
gurari onera.*

*Ikasletaiko batzuk  
eskuak garbitzeke  
egozan maiean,  
eta Pariseuak  
ezin eben ikusi  
esku loirik jatean.*

*Ta Jesusi dirautse  
euren asmo zorrotzez  
bazkari aurrean,  
zure jarraitzailleak  
ez al dira garbitzen  
bazkari orduan?*

*Azal uts gizajoak  
gogoratu eizue  
Isaiasena,  
espaneiz goratzen nau  
biotzez, urrin, dago  
nigandik errian.*

*Jaunaren agindua  
bertan bera itzita,  
arroki, zabiltezez,  
argitu buru ori  
egiaren aurrean  
egizko indarrez.*